

# INFO GAZTEA

## Ingeniaritza eta Arkitektura Gradu Ikasketak (Ikasketa Teknikoak)

Euskal Herriko Unibertsitateko graduiko ikasketak Arabako Gazteen Dokumentazio eta Informazio Lurraldeak bildutakoak. Bilduma honetan agertzen diren ikasketak Euskal Herrian ematen direnak dira. Baita estatuko beste unibertsitate batzuen aipamenarekin ere.

*Azken eguneratzea: 2025eko irailean*

## Ingeniaritza eta Arkitektura (Ikasketa Teknikoak)

• Adimen Artifizialeko Gradua	4
• Adimen Artifizialaren Ingeniaritzako Gradua	7
• Aeronautikako Ingeniaritza Aeroespazialeko Gradua	10
• Arkitektura Teknikoko Gradua	12
• Arkitektura Ikasketetako Gradua	15
• Arkitektura Oinarrietako Gradua	19
• Automobilgintzaren Ingeniaritzako Gradua	23
• Baso eta Natura-ingurunekeo Ingeniaritzako Gradua	26
• Bideo-jokoen Diseinu eta Garapeneko Gradua	29
• Biomedical Engineering-ko Gradua	32
• Business Data Analytics Gradua	35
• Datuen Zientzia eta Adimen Artifizialeko Gradua	37
• Diseinu Mekanikoko Ingeniaritzako Gradua	40
• Diseinuko Gradua (Design)	43
• Energia Berriztagarrietako Ingeniaritzako Gradua	46
• Energiaren Ingeniaritzako Gradua	49
• Eraikuntza Ingeniaritzako Gradua	52
• Geomatika eta Topografia Ingeniaritzako Gradua	55
• Industria Antolakuntzako Ingeniaritzako Gradua	58
• Industriari Aplikatutako Ingeniaritza Fisikoko Gradua	62
• Industria Diseinuko Ingeniaritzako Gradua	65
• Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza Gradua	68
• Industria Elektronikako Ingeniaritzako Gradua	71
• Industria Elektronikoen eta Automatikaren Ingeniaritzaren Gradua	74
• Industria Kimikaren Ingeniaritzako Gradua	77
• Industria Teknologiaren Ingeniaritzako Gradua	80
• Informatika Ingeniaritzako Gradua	83
• Informatika Ingeniaritzako Gradua (Bideo-jokoak, errealitate birtuala eta areagotua)	87
• Ingeniaritza Aeroespazialeko Gradua	90
• Ingeniaritza Biomedikoko Gradua	93

• Ingeniaritza Elektriko eta Elektronikoko Gradua	96
• Ingeniaritza Elektrikoko Gradua	98
• Ingeniaritza Elektronikoko, Robotiko eta Mekatronikoko Gradua	101
• Ingeniaritza Elektronikoko Gradua	104
• Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	106
• Ingeniaritza Mekatronikako Gradua	110
• Ingeniaritza Nautikoko eta Itsas Garraioko Gradua	113
• Ingeniaritza Termikoan Gradua (Dual)	116
• Ingeniaritza Zibileko Gradua	119
• Ingurumen Ingeniaritzako Gradua	122
• Itsasketako Ingeniaritzako Gradua	125
• Janari-produktu eta Prozesuen Berrikuntzako Gradua	128
• Kimika Ingeniaritzako Gradua	131
• Konputagailuen eta Informatikaren Ingeniaritzako Gradua	134
• Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradua	137
• Merkataritza-hegazkintza eta Aireko Operazioetarako Pilotuko Gradua	140
• Nekazaritzako Elikagaien eta Landa-inguruneko Ingeniaritzako Gradua	143
• Ontzi-arkitekturako Gradua	146
• Prozesu eta Produktu Berrikuntzan Ingeniaritzako Gradua	149
• Prozesu Industrialetako Ekoteknologiaren Ingeniaritzako Gradua	152
• Robotika Ingeniaritzako Gradua	154
• Software Ingeniaritzako Gradua	156
• Soinu eta Irudiko Ingeniaritzako Gradua	159
• Telekomunikazio Teknologiaren Ingeniaritzako Gradua	162
• Telekomunikazioko Sistemen Ingeniaritzako Gradua	165
• Zibersegurtasuneko Gradua	169

## ADIMEN ARTIFIZIALEKO GRADUA

Adimen Artifizialak goitik behera aldatuko du gure mundua, eta sistema adimendunak sortu eta barneratuko ditu gure eguneroko bizitzan, eremu pertsonalean zein profesionalean. Adimen Artifizialeko Graduak ateak zabalduko dizkizu etorkizuna duen diziplina batean prestakuntza hartzeko eta jakinduria eta trebetasunak lortuko dituzu honako arloetan: elkarrizketetarako laguntzaileak, itzulpen automatikoa, robotika soziala, ikusmena, gidatze autonomoa, Big Data eta datuen analisia, neurona sare sakonak, arrazobide automatikoa eta errealtate birtual eta areagotua.

### SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

### IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Adimen Artifizialeko Graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

### IKASKETA PLANA UPV/EHUko ikasketa-plana

Ikasmailak	Oinarrizko prestakuntza	Nahitaezkoak	Hautazkoak	Gradu amaierako lana	Guztira
1	60		0	0	60
2	0	60	0	0	60
3	0	60	0	0	60
4	0		48	12	60
Guztira	60	120	48	12	240

### OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK

#### Lehenengo maila:

- . Analisi Matematikoa. 6 kreditu
- . Estatistika Metodoak Ingeniaritzan. 6 kreditu
- . Konputagailuen Arkitekturaren Oinarriak. 6 kreditu
- . Matematika Diskretua. 6 kreditu
- . Oinarrizko Programazioa. 6 kreditu
- . Aljebra. 6 kreditu
- . Kalkulua. 6 kreditu
- . Konputagailu-Sareen eta Sistema Eragileen Oinarriak. 6 kreditu
- . Programazio Modularra eta Objektu Orientazioa. 6 kreditu
- . Programazioaren Metodologia. 6 kreditu

**Bigarren maila:**

- . Datu Meatzaritza. 6 kreditu
- . Datu-egiturak eta Algoritmoak. 6 kreditu
- . Estatistika Metodo Aurreratuak. 6 kreditu
- . Seinaleak eta Sistemak. 6 kreditu
- . Sistema Paraleloak eta Banatuak. 6 kreditu
- . Adimen Artifiziala. 6 kreditu
- . Arrazoibide Automatikoa. 6 kreditu
- . Datu-baseak. 6 kreditu
- . Ikerketa Operatiboa. 6 kreditu
- . Software Ingeniaritza. 6 kreditu

**Hirugarren maila:**

- . Bilaketa Heuristikoak. 6 kreditu
- . Datu Baseen Diseinua. 6 kreditu
- . Hizkuntzaren Prozesamendua. 6 kreditu
- . Ikaskuntza Automatikoa eta Neurona Sareak. 6 kreditu
- . Robotikaren Oinarriak. 6 kreditu
- . Big Data Aplikazioen Garapena. 6 kreditu
- . Datu Masiboen Prozesamendurako Azpiegiturak. 6 kreditu
- . Ikaskuntza Automatiko Aurreratua. 6 kreditu
- . Konputagailu bidezko Ikusmena. 6 kreditu
- . Testu-datuen Meatzaritza. 6 kreditu

**Laugarren maila:**

- . Gradu Amaierako Lana. 12 kreditu

**Hizkuntzak:** euskara, gaztelania eta ingelesa. (OHARRA: Titulazio honetako irakasgai guztiak ez dira hizkuntza guztietan ematen)

**LAN IRTEERAK**

- Finantza sektoreko datuen zientifikoa, aseguru etxeak, osasuna eta bioinformatika, etab.
- Konponbideen diseinua eta garapena hizkuntza naturalaren prozesamenduaren arloan, laguntzaile pertsonalak, esaterako.
- Ekoizpen prozesuen aditua industrian eta beste sektore batzuetan.
- Errealitate birtual eta areagotuko aplikazioen diseinua eta garapena.
- Robotika sozialaren sektoreko garapenak.
- Ekintzaitza: enpresa berritzaileen sorrera eta kudeaketa sistema adimendunen arloan.
- Irakaslana hezkuntzako maila guztietan.
- I+G: Ikerketa eta garapena, behin masterreko ikasketak eta doktorego tesia egin ondoren.

### **IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK**

- \* Euskal Herriko Unibertsitatea (Gipuzkoa)
- \* A Coruñaiko Unibertsitatea
- \* Alacanteko Unibertsitatea
- \* Juan Carlos Erregea Unibertsitatea
- \* Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa
- \* San Jorge Unibertsitatea
- \* Santiagoko Unibertsitatea
- \* Vigoko Unibertsitatea

**2025/26 ikasturteko datuak**

### **LOTURA INTERESGARRIAK**

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Euskal Herriko Unibertsitatea](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

[Euskal Herriko Unibertsitatea](#)

## **ADIMEN ARTIFIZIALAREN INGENIARITZAKO GRADUA**

Adimen Artifizialeko Ingeniaritzako Graduak sistema adimendunak diseinatzeko eta garatzeko gaitasuna duten profesionalak eratzen ditu, ikasteko gaitasun autonomoa dutenak, baita datu ugari prozesatzeko, bistaratzeko eta aurreratzeko eredu sendoak eskaintzeko gaitasuna dutenak ere.

### **SARTZEKO BALDINTZAK**

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

### **IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA**

Adimen Artifizialeko Ingeniaritzako Graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastordua.

### **OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK**

#### **Lehenengo maila:**

- . Kalkulua I. 6 kreditu
- . Kalkulua II. 6 kreditu
- . Aljebra. 6 kreditu
- . Objektuei orientatutako programazioa. 6 kreditu
- . Fisika I. 8 kreditu
- . Ekonomia eta Enpresa. 6 kreditu
- . Informatika. 6 kreditu
- . Estatistika eta probabilitatea. 6 kreditu
- . Antropologia. 2 kreditu
- . Antropologia II. 4 kreditu
- . Ingeniaritzarako sarrera. 2 kreditu
- . Etika. 2 kreditu

#### **Bigarren maila:**

- . Ordenagailuen oinarriak. 6 kreditu
- . Datuen egitura eta algoritmia. 4 kreditu
- . Datuak prozesatzea. 6 kreditu
- . Matematika konputazionala. 6 kreditu
- . Teknologia elektronikoa. 6 kreditu
- . Datuak bistaratzeko. 4 kreditu

- . Ekuazio diferentzialak. 6 kreditu
- . Machine Learning. 6 kreditu
- . Etika II. 2 kreditu
- . Optimizazio-teknikak. 6 kreditu
- . Datuen analisia. 4 kreditu
- . Ibilbidea. 4 kreditu

#### Hirugarren maila:

- . Informazioaren teknologia. 4 kreditu
- . Machine Learning II. 6 kreditu
- . Deep Learning. 6 kreditu
- . Informazioaren kodetzea eta teoria. 6 kreditu
- . Mikroprozesadoreak. 4 kreditu
- . Datuaren ingeniari-tza. 4 kreditu
- . Kontrol automatikoa. 4 kreditu
- . Pertsona-Makina elkarreragina. 4 kreditu
- . Computer vision I. 4 kredituak
- . Etika III. 2 kreditu
- . Kultura Gakoak I. 2 kredituak
- . Kultura Gakoak II. 2 kreditu
- . Big data & Cloud Computing. 6 kreditu

#### Laugarren maila:

- . IoT- Agente adimendunak. 6 kreditu
- . Ingurune adimendunak. 4 kreditu
- . Softwarearen garapena. 6 kreditu
- . Foundation Models. 6 kreditu
- . Zibersegurtasuna. 4 kreditu
- . Computer Vision II. 4 kreditu
- . Robotika adimenduna. 6 kreditu
- . Proiektuak. 4 kreditu.
- . High Performance Computing. 4 kreditu
- . Gradu Amaierako Proiektua. 12
- . Language Processing naturala. 4 kreditu

**Hizkuntzak:** gaztelania eta ingelesa

#### LAN IRTEERAK

- Finantza sektoreko datuen zientifikoa, aseguru etxeak, osasuna eta bioinformatika, etab.

- Konponbideen diseinua eta garapena hizkuntza naturalaren prozesamenduaren arloan, laguntzaile pertsonalak, esaterako.
- Ekoizpen prozesuen aditua industrian eta beste sektore batzuetan.
- Errealitate birtual eta areagotuko aplikazioen diseinua eta garapena.
- Robotika sozialaren sektoreko garapenak.
- Ekintzailetza: enpresa berritzaileen sorrera eta kudeaketa sistema adimendunen arloan.
- Irakaslana hezkuntzako maila guztietan.
- I+G+B: ikerketa, garapen eta berrikuntza, behin masterreko ikasketak eta doktorego tesia egin ondoren.

### **IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK**

\* Nafarrako Unibertsitatea (San Sebastian)

### **2025/26 ikasturteko datuak**

#### **LOTURA INTERESGARRIAK**

[Eusko Jaurjaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Euskal Herriko Unibertsitatea](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

[Euskal Herriko Unibertsitatea](#)

## AERONAUTIKAKO INGENIARITZA AEROESPAZIALEKO GRADUA

Aeronautikako Ingeniaritza Aeroespazialeko Gradua burutzen duten ikasleek ondorengoetan jasoko dute prestakuntza: aireontziak, ibilgailu espazialak, aireko motorrak, aireportuak eta aireko nabigazioa. Zeharkako prestakuntza honek ikasleari industria aeroespazialaren ikuspegi zabala eskaintzea du helburu. Hala ere, aireko nabigazioaren eremuan sakonduko da, telekomunikazioak edo aireko garraioaren ekonomiarekin lotura duena. Hortaz, kontrol automatikoa, erradar eta satelite bidezko komunikazioak edo aireko garraioa bezalako diziplinak ere landuko dira.

### SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

### IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Aeronautikako Ingeniaritza Aeroespazialeko Graduak 4 urte irauten du eta ikasketan 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK Juan Carlos Erregea Unibertsitateko ikasketan plana

#### **Lehenengo maila:**

- . Aljebra. 6 kreditu
- . Kalkulua. 6 kreditu
- . Aeronautikarako Fisika. 6 kreditu
- . Informatika eta Programazioaren Oinarriak. 6 kreditu
- . Aeronautikarako Kimika. 6 kreditu
- . Eremu Elektromagnetikoak. 6 kreditu
- . Ekuazio Diferentzialak eta Zenbakizko Kalkulua. 6 kreditu
- . Adierazpen Grafikoa. 6 kreditu
- . Abrazioaren Historia. 6 kreditu
- . Ingeniaritza Aeroespaziala. 6 kreditu

#### **Bigarren maila:**

- . Materialen Zientzia eta Teknologia. 4.5 kreditu
- . Enpresa (hastapena). 4.5 kreditu
- . Seinalearen Teoria eta Komunikazioak. 6 kreditu
- . Termodinamika, Motorrak eta Propulsaioak. 6 kreditu
- . Egitura Aeronautikoen Erresistentzia eta Elastikotasuna. 6 kreditu
- . Estatistika. 6 kreditu
- . Fluidoaren Mekanika. 6 kreditu
- . Aireko Nabigazioa. 6 kreditu

- . Aeronautikaren Kudeaketa, Legeria eta Araudia. 6 kreditu
- . Hizkuntza Modernoa. 6 kreditu
- . Sistemak eta Zirkuituak. 4.5 kreditu

#### Hirugarren maila:

- . Aerodinamika. 6 kreditu
- . Aireportuak eta Aireko Garraioa. 6 kreditu
- . Kartografia eta Meteorologia. 3 kreditu
- . Aireko Espazioaren Ustiapena. 3 kreditu
- . Telekomunikazio Sistemen Oinarriak. 6 kreditu
- . Material Aeroespazialak. 6 kreditu
- . Abionika. 6 kreditu
- . Hegaldiaren Mekanika. 6 kreditu
- . Aireko Espazioaren Optimizazioa. 6 kreditu
- . Aireko Nabigazio Sistemak. 6 kreditu
- . Aeronautikarako Telekomunikazio Sistemak. 6 kreditu

#### Laugarren maila:

- . Satelite Bidezko Nabigazio Sistemak. 6 kreditu
- . Aginte eta Kontrol Sistemak. 6 kreditu
- . Kanpoko Praktiak. 18 kreditu
- . Gradu Amaierako Lana. 12 kreditu

#### **LAN IRTEERAK**

Irakaskuntza, ikerketa eta garapena, proiektuak garatzea, ekoizpena, azpiegituren kudeaketa, zerbitzuak, kudeaketa eta administrazioa. Hasiera batean profesional honek teknologiarara lotutako jarduera burutuko du, ondoren beste hainbat jardueratara helduko delarik, esaterako, produktuak, prozesuak eta zerbitzuak antolatzeko kudeaketa teknikoa.

#### **IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK**

\* Juan Carlos Erregea Unibertsitatea

#### **2025/26 ikasturteko datuak**

#### **LOTURA INTERESGARRIAK**

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)  
[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

## ARKITEKTURA TEKNIKOKO GRADUA

Tituludunek eraikuntzaren arloko profesional bilakatuko dituen trebakuntza jaso beharko dute, hainbat zeregin gauzatzeko: besteak beste, proiektuak idatzi, eraikuntza-lanak gidatu edo zuzendu, prozesuen eta berauen kontratazioaren kudeaketa ekonomikoa gauzatu, kontrol tekniko eta ekonomikoa eraman, likidazioak eta egiaztagiriak egin, segurtasunaz eta arriskuen prebentzioaz arduratu, materialen kalitate-kontrola gauzatu, etab. Konpetentzia teknikoez gain graduatutako ikasleak beste era bateko gaitasunak jasotzen ditu; erabilgarriak izango zaizkio hauek komunikaziorako, taldean lan egiteko, arazoei inizatibaz eta sormenarekin aurre egiteko, etab.

### SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

### IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Arkitektura Teknikoko Graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastordua.

### IKASKETA PLANA UPV/EHUko ikasketa-plana

Ikasmailak	Oinarrizko prestakuntza	Nahitaezkoak	Hautazkoak	Gradu amaierako lana	Guztira
1	52.5	7.5	0	0	60
2	0	60	0	0	60
3	0	60	0	0	60
4	0	21	27	12	60
Guztira	52.5	148.5	27	12	240

### OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK

#### Lehenengo maila:

- . Adierazpen Grafikoa I. 9 kreditu
- . Enpresari Aplikaturiko Ekonomia. 7,5 kreditu
- . Eraikuntza I. 7,5 kreditu
- . Fisika Aplikatua. 9 kreditu
- . Instalazioak I. 6 kreditu
- . Materialen Oinarriak I. 9 kreditu
- . Oinarri Matematikoak I. 6 kreditu
- . Oinarri Matematikoak II. 6 kreditu

#### Bigarren maila:

- . Adierazpen Grafikoa II. 6 kreditu
- . Egiturak I. 6 kreditu
- . Eraikuntza II. 9 kreditu
- . Eraikuntzaren Historia. 6 kreditu
- . Instalazioak II. 6 kreditu
- . Materialak II. 9 kreditu
- . Prebentziorako, Segurtasunerako eta Osasunerako Sarrera eta Proiektu Teknikoak. 6 kreditu
- . Zuinketak eta Topografia. 6 kreditu
- . Zuzenbidea. 6 kreditu

#### Hirugarren maila:

- . Adierazpen Grafikoa III. 6 kreditu
- . Egiturak II. 6 kreditu
- . Egiturak III. 6 kreditu
- . Eraikuntza III. 9 kreditu
- . Hirigintza Kudeaketa. 6 kreditu
- . Laneko Segurtasuna eta Prebentzioa. 6 kreditu
- . Lanen Plangintza, Antolakuntza eta Kontrola. 6 kreditu
- . Neurketak eta Aurrekontuak. 9 kreditu
- . Proiektu Teknikoak. 6 kreditu

#### Laugarren maila:

- . Eraikuntza IV. 9 kreditu
- . Eraikuntzaren Kalitatea. 6 kreditu
- . Peritatzea eta Tasazioak. 6 kreditu
- . Gradu Amaierako Lana. 12 kreditu

**Hizkuntzak:** euskara, gaztelania eta ingelesa. (OHARRA: Titulazio honetako irakasgai guztiak ez dira hizkuntza guztietan ematen)

#### LAN IRTEERAK

Eraikuntzan erabiltzen diren material eta elementuen fabrikazio prozesuak teknikoki kudeatzea.

Eraikuntzako obrak eta hauen elementu eta instalazioetarako materialaren egikaritzea zuzentzea, beti ere material, sistema eta obraren egikaritzearen kontrol-planen ezarpen eta kudeaketaren bidezko kontrol kualitatibo eta kuantitatiboa burutuz, eta Eraikinaren Liburuan sartzeko beharrezkoak diren erregistroak eginez.

Obraren kontrol ekonomikoa kontrolatzea, ziurtagiriak eta burututako obraren likidazioa eginez.

Eraikinen erabilera, kontserbazio eta mantenimendua zuzendu eta kudeatzea, beharrezko dokumentu teknikoak idatziz. Eraikin, eraikuntza sistema eta materialen bizi-ziklo

erabilgarriari buruzko azterketak egitea. Eraikuntza eta errauspenaren hondakinen tratamendua kudeatzea.

Proiektu teknikoak egitea eta eraikuntza obrak zuzentzea, moldaketa legalaren eremuan.

Higiezinaren prozesua kudeatzea. Eraikuntza obretan enpresen ordezkariak teknikoak izatea.

Eraikin-teknologia berriak kudeatzea eta kalitatearen kudeaketa prozesuetan parte hartzea, ondorengoak eginez: analisiak, efizientzia energetikoko ebaluaketak eta ziurtagiriak eta eraikinen jasagarritasunaren azterketak.

Ondorengo jarduera teknikoak egitea: kalkulua, neurketak, balorazioak, tasatzeak eta bideragarritasun ekonomikoko azterketak. Peritazioak, ikuskapenak eta patologia analisiak egitea eta baita hauei dagozkien txosten, irizpen eta dokumentu teknikoak ere. Eraikin eta orubeen planoak jasotzea.

Segurtasun eta lan osasuneko planak eta azterketak idaztea eta enpresen jarduera kudeatzea, proiektu fasean zein egikaritzean.

#### **IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK**

- \* Euskal Herriko Unibertsitatea (Donostia)
- \* Alacanteko Unibertsitatea
- \* Alcalá de Henaresko Unibertsitatea
- \* Burgosko Unibertsitatea
- \* Castellóko Jaume I.a Unibertsitatea
- \* Coruñako Unibertsitatea
- \* Gironako Unibertsitatea
- \* Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa
- \* La Lagunako Unibertsitatea
- \* Lleidako Unibertsitatea
- \* Madrilgo Unibertsitate Europarra
- \* Salamancako Unibertsitatea
- \* Valentziako Unibertsitate Politeknikoa
- \* Zaragozako Unibertsitatea

#### **2025/26 ikasturteko datuak**

#### **LOTURA INTERESGARRIAK**

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Euskal Herriko Unibertsitatea](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

## ARKITEKTURA IKASKETETAKO GRADUA

Gradu honek, diziplina anitzeko prestakuntza osoa eskaintzen die ikasleei, eremu ezberdinetan lan egin ahal izateko. Profesional hauek ondorengoak lortuko dituzte: eraikingintza proiektuak egitea eta aurrera eramatea, hirigintzako proiektuak burutzea eta eraikinak birgaitzea eta zaharberritzea.

Parkeen diseinuan eta paisaiaren esku-hartzean lan egin dezakete, baita diseinu jasangarri eta energia-eraginkortasunaren eremuan ere.

Gainera, diseinuaren inguruan jasoko duten prestakuntzari esker, hainbat eremu artistikotan lan egiteko gaitasuna izango dute, esaterako, argazkilaritza, barne diseinua, moda diseinua edo diseinu grafikoa.

### SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

### IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Arkitektura Ikasketetako Graduak 5 urte irauten du eta ikasketa-planak 300 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

### ONARRIZKO PRESTAKUNTZA Nafarroako Unibertsitateko ikasketa plana

#### Lehenengo maila:

- . Análisi Matematikoa. 6 kreditu
- . Anatomia Arkitektonikoa. 3 kreditu
- . Contemporary Art and Architecture. 3 kreditu
- . Molde eta Geometria Laborategia I (+ Graphic Lab). 6 kreditu
- . Adierazpen Grafikoko Tailerra. 9 kreditu
- . Matematika Aplikatua. 3 kreditu
- . Eraikuntzaren Fisika. 6 kreditu
- . Construction Systems. 3 kreditu
- . Modernotasunaren Arkitekturak. 3 kreditu
- . Molde eta Geometria Laborategia II (+ Graphic Lab). 6 kreditu
- . Sorkuntza Arkitektonikoko Tailerra. 6 kreditu
- . Antropologia. 6 kreditu

#### Bigarren maila:

- . Fisika Aplikatua. 6 kreditu
- . Eraikuntza I. 3 kreditu
- . Teoria eta Historia I. 3 kreditu
- . Urban Morphology. 3 kreditu
- . Structural Systems. 3 kreditu

- . Eraikuntza II. 4'5 kreditu
- . Instalazioak I. 4'5 kreditu
- . Teoria eta Historia II. 3 kreditu
- . Hiria eta Paisaia. 3 kreditu
- . Graphic Lab I. 3 kreditu
- . Proiektuetarako Tailerra. 15 kreditu
- . Etika. 6 kreditu
- . Instalazioak II. 3 kreditu

#### Hirugarren maila:

- . Eraikuntza III. 3 kreditu
- . Instalazioak II. 3 kreditu
- . Egiturak I. 3 kreditu
- . Kultura Gakoak I. 3 kreditu
- . Hirigintza I. 3 kreditu
- . Teoria eta Historia III. 3 kreditu
- . Eraikuntza IV. 3 kreditu
- . Instalazioak III. 3 kreditu
- . Egiturak II. 3 kreditu
- . Kultura Gakoak II. 3 kreditu
- . Hirigintza II. 3 kreditu
- . Teoria eta Historia IV. 3 kreditu
- . International Seminar I. 3 kreditu
- . Graphic Lab II. 3 kreditu
- . Proiektuetarako Tailerra II. 15 kreditu
- . Instalazioak IV. 3 kreditu

#### Laugarren maila:

- . Eraikuntza V. 4'5 kreditu
- . Egiturak III. 4'5 kreditu
- . Deontologia eta Zerbitzua. 3 kreditu
- . Hirigintza III. 3 kreditu
- . Kritika Arkitektonikoa. 3 kreditu
- . Hautazkoa II. 3 kreditu
- . Instalazioak IV. 4'5 kreditu
- . Egiturak IV. 4'5 kreditu
- . Legeria eta Balorazioak. 3 kreditu
- . Hirigintza IV. 3 kreditu
- . Arkitektura eta Gizartea. 3 kreditu
- . International Seminar II. 3 kreditu
- . Graphic Lab III. 3 kreditu

. Proiektuetarako tailerra III. 15 kreditu

#### **Bosgarren maila:**

- . Diseinu Teknikoa II. 4'5 kreditu
- . Proiektuaren Kudeaketa. 3 kreditu
- . Ekonomia eta Enpresa. 3 kreditu
- . International Seminar III. 3 kreditu
- . Oriented Design Studio II. 7'5 kreditu
- . Gradu Amaierako Lana. 6 kreditu

#### **MINORRA**

Ikasleek, egiten dituzten hautazko irakasgaien arabera, honako Minor hauek lortu ahalko dituzte:

- . Creative Management
- . Urban Management
- . Tech Management

#### **LAN IRTEERAK**

- Proiektugilea.
- Egitura, instalazio eta proiektu kontsultorea.
- Obra zuzendaria.
- Peritua.
- Hirigilea.
- Forentsea eta tasatzailea.
- Irakaslea eta ikertzailea.
- Diseinatzailea.
- Higiezineta sustatzailea.
- Ondare historikoko eraikinen birgaitzea eta zaharberritzea.
- Grafiko eta altzariak diseinatzea.
- Programatzaile grafikoa.
- Udal arkitektoa.
- Ogasun saileko arkitektoa.
- Segurtasuna eta osasuna.
- Laborategi eta aholkularitza teknikoko bulego teknikaria.

#### **IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK**

- \* Coruñako Unibertsitatea
- \* Gironako Unibertsitatea
- \* Granadako Unibertsitatea
- \* IE Unibertsitatea
- \* Nafarroako Unibertsitatea
- \* Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa

- \* Ramon Llul Unibertsitatea
- \* Rovira I Virgili Unibertsitatea
- \* Zaragozako Unibertsitatea

#### **2025/26 ikasturteko datuak**

#### **LOTURA INTERESGARRIAK**

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

[Nafarroako Unibertsitatea](#)

Info Gaztea

## ARKITEKTURAREN OINARRIETAKO GRADUA

Arkitektoak bi funtzio izaten ditu: batetik, eraikin, hiri-eremu eta parkeak, paisaiaren araberako estetikari jarraituz, diseinatu eta planifikatzea; eta bestetik, teknikoagoa, kostuen kalkulu, material eta gauzatze-lanen koordinazioaren ingurukoa.

Arkitekto Hirigileak hiri-eremuaren egitura planteatu eta hauek gauzatzeko lanak koordinatzen ditu, eraikiko diren eremuak antolatzeko planoak prestatzen ditu (industria, merkataritza, etxebizitza, olgeta, irakaskuntza eta bestelako zerbitzu komunitarioetarako guneen antolamendua barne). Eraikuntzako arkitektoa eraikin handien egituraren proiektua egiteaz arduratzen da, eta baita, hauen eraikuntza-, kontserbazio- eta konpontze-lanak planteatu, antolatu eta kontrolatzeaz.

### SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

### IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Arkitekturaren Oinarrietako Gradua 5 urte irauten du eta ikasketa-planak 300 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

Arkitekturaren eta hirigintzaren arloko profesional moduan jardun ahal izateko Arkitektura Masterra gainditu behar da (Arkitekturan gaitzeko masterra).

### IKASKETA PLANA UPV/EHUko ikasketa-plana

Ikasmailak	Oinarrizko prestakuntza	Nahitaezkoak	Hautazkoak	Gradu amaierako lana	Guztira
1	36	24	0	0	60
2	24	36	0	0	60
3	0	60	0	0	60
4	0	60	0	0	60
5	0	21	30	9	60
Guztira	60	201	30	9	300

### OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK

#### Lehenengo maila:

- . Inguru Fisikoari buruzko Kontzeptuak. 6 kreditu
- . Oinarri Matematikoak I: Aljebra eta Geometria Aplikatuak. 6 kreditu
- . Arkitektura Irudigintza I. 6 kreditu
- . Arkitekturaren Historia. 3 kreditu
- . Eraikuntzaren Análisis I. 3 kreditu

- . Geometria I.6 kreditu
- . Proiektuak I: Diseinua eta Adierazpena. 6 kreditu
- . Arkitektura Irudigintza II. 6 kreditu
- . Arkitekturarako Sarrera. 3 kreditu
- . Eraikuntzaren Analisia II. 3 kreditu
- . Geometria II. 6 kreditu
- . Proiektuak II: Etxea I. 6 kreditu

#### Bigarren maila:

- . Arkitektura Irudigintza III. 6 kreditu
- . Eraikuntzaren Analisia III. 3 kreditu
- . Hirigintza I - Inguru Fisikoa. 3 kreditu
- . Konposizioa I. 3 kreditu
- . Proiektuak III: Etxea II. 9 kreditu
- . Arkitektura Irudigintza IV. 6 kreditu
- . Artearen eta Arkitekturaren Teoria eta Historia I. 3 kreditu
- . Eraikuntzaren Analisia IV. 3 kreditu
- . Hirigintza II. Hiri Izatea. 3 kreditu
- . Proiektuak IV: Egoitza Guneak I. 9 kreditu

#### Hirugarren maila:

- . Artearen eta Arkitekturaren Teoria eta Historia II. 3 kreditu
- . Egiturak I.4,5 kreditu
- . Enpresa I. 3 kreditu
- . Eraikuntza I. 3 kreditu
- . Hirigintza III: Hirigintza Legedia. 4 kreditu
- . Proiektuak V: Egoitza Guneak II. 9 kreditu
- . Zerbitzuak I.3,5 kreditu
- . Artearen eta Arkitekturaren Teoria eta Historia III.3 kreditu
- . Egiturak II. 4,5 kreditu
- . Enpresa II. 3 kreditu
- . Eraikuntza II. 3 kreditu
- . Hirigintza IV. Hirigintza Proiektuetarako eta Paisaiarako Sarrera. 4 kreditu
- . Proiektuak VI: Egoitza Guneak III.9 kreditu
- . Zerbitzuak II. 3,5 kreditu

#### Laugarren maila:

- . Egiturak III. 4,5 kreditu
- . Eraikuntza III. 3 kreditu
- . Eraikuntza Prozesua I. 3 kreditu
- . Girotze Sistemak I. 3,5 kreditu
- . Hirigintza V. Plangintzarako Sarrera: Eskala Xehatua eta Zehaztua. 4 kreditu

- . Konposizioa II. 3 kreditu
- . Proiektuak VII: Eremu Publikoak I. 9 kreditu
- . Egiturak IV. 4,5 kreditu
- . Eraikuntza IV. 3 kreditu
- . Eraikuntza Prozesua II. 3 kreditu
- . Girotze Sistemakl II. 3,5 kreditu
- . Hirigintza VI: Plangintzarako Sarrera: Egituratze Eskala. 4 kreditu
- . Konposizioa III. 3 kreditu
- . Proiektuak VIII: Eremu Publikoak II. 9 kreditu

#### **Bosgarren maila:**

- . Hiri Atondura. 3 kreditu
- . Hirigintza VII. Lurralde Antolakuntza eta Ingurugiroaren Babesa. 3 kreditu
- . Proiektuak IX: Eremu Publikoak III. 9 kreditu
- . Gradu-amaierako Lana. 9 kreditu
- . Hiri Zerbitzuak. 3 kreditu
- . Hirigintza VIII: Plangintza Praktikak. 3 kreditu

#### **MINORRA**

Ikasleek, egiten dituzten hautazko irakasgaien arabera, honako Minor hauek lortu ahalko dituzte:

- . Ondasuna, birgaitzea eta kontserbazioko minorra
- . Hirigintza, paisaia eta lurraldeko minorra
- . Sortzeko berrikuntza eta ikerketari buruzko minorra

#### **LAN IRTEERAK**

Arkitektura estudioetan, eraikuntza enpresetan, funtzio publikoan eta hezkuntzan: Administrazio publikoa: udal arkitektoa, ondarea, katastroa. Diseinu industrial, moda. Eraikinen zaharberritzea eta birgaitzea. Eraikuntza lanen zuzendaritza. Gizarte eta ingurumen eraginaren ebaluazioa eta kontrola. Higiezinaren eta ondarearen kudeaketa. Irakaskuntza erdi mailako eta unibertsitate mailako ikasketetan. Lurralde plangintza eta antolakuntza, paisajismoa. Segurtasuna eta laneko arriskuen prebentzioa

Gradua amaitu eta Arkitektura Masterra gainditu ondoren, arkitekturaren eta hirigintzaren arloko profesional moduan jardun ahal izango duzu. Horrela, proiektuak pentsatu, idatzi eta errealitate bihurtu ahal izango dituzu ideia eta diseinuaz gain eraikuntza prozesuak eta garapen teknikoak menperatuz eta, hori guztia, energia eraginkortasuna eta jasangarritasunaren irizpideak kontutan hartuta.

#### **IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK**

- \* Euskal Herriko Unibertsitatea (Donostia)
- \* Alacanteko Unibertsitatea

- \* Alcala de Henaresko Unibertsitatea
- \* Antonio Nebrijakoa Unibertsitatea
- \* Cardenal Herrera Unibertsitatea
- \* Juan Carlos Erregea Unibertsitatea
- \* Kanarietako Unibertsitatea Europarra
- \* Madrilgo Unibertsitate Europarra
- \* Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa
- \* Malagako Unibertsitatea
- \* San Antonio Unibertsitate Katolikoa
- \* Sevillako Unibertsitatea
- \* Valentziako Unibertsitate Politeknikoa
- \* Valladolideko Unibertsitatea

#### **2025/26 ikasturteko datuak**

##### **LOTURA INTERESGARRIAK**

[Eusko Jaurjaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Euskal Herriko Unibertsitatea](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

## AUTOMOBILGINTZAREN INGENIARITZAKO GRADUA

Automobilgintzaren Ingeniaritzako Graduak beharrezko prestakuntza zientifiko-teknikoa eta sozioekonomikoa ematen du, oro har industriaren arloan eta bereziki automobilgintzaren arloko industriarenean hainbat jarduera burutzeko; besteak beste, ekipo eta instalazioak asmatu, kalkulatu, diseinatu, aztertu, eraiki, martxan jarri eta horietan aritzea.

### SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

### IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Automobilgintzaren Ingeniaritzako Graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

### IKASKETA PLANA UPV/EHUko ikasketa-plana

	Oinarrizko prestakuntza	Nahitaezkoak	Hautazkoak	Kanpoko praktikak	Gradu amaierako lana	Guztira
1	54	6	0	0	0	60
2	6	54	0	0	0	60
3	0	42	0	18	0	60
4	0	6	18	24	12	60
Guztira	60	108	18	42	12	240

### OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK

#### Lehenengo maila:

- . Aljebra. 6 kreditu
- . Kalkulua. 6 kreditu
- . Informatikaren Oinarriak. 6 kreditu
- . Komunikazio eta Gizarte Gaitasunak eta Ikerkuntza-erremintak Ingeniaritzan. 6 kreditu
- . Ingeniaritza Grafikoa Automobilgintzan. 6 kreditu
- . Automobilgintzarako Materialak. 6 kreditu
- . Kalkulu Aurreratua eta Zenbakizko Análisi Aurreratua. 6 kreditu
- . Mekanikaren Oinarriak. 6 kreditu
- . Fluidoaren Mekanika. 6 kreditu
- . Automobilgintzarako Metodo Estatistikoak. 6 kreditu

#### Bigarren maila:

- . Zirkuitu Elektrikoen Analisia. 6 kreditu
- . Automobilgintzarako Elektronika. 6 kreditu
- . Ibilgailuen Ingeniaritza. 6 kreditu
- . Elementu Finituen Bidezko Simulazioa eta Analisia Automobilgintzan. 6 kreditu
- . Termodinamika eta Termoteknia. 6 kreditu
- . Makina eta Trakzio Elektrikoak. 6 kreditu
- . Ekonomia eta Enpresen Administrazioa. 6 kreditu
- . Egituren Kalkulua eta Diseinua Automobilgintzan. 6 kreditu
- . Ibilgailuen Sistemen Kontrola eta Gidatze Laguntza Sistemak. 6 kreditu
- . Barne-errekuntzazko Motorrak. 6 kreditu

#### Hirugarren maila:

- . Aerodinamika. 6 kreditu
- . Energia Elektrikoaren Metaketa eta Integrazioa Automobil-Sistemetan. 6 kreditu
- . Ibilgailu Elektrikoak eta Hibridoak. 6 kreditu
- . Fabrikazio-prozesuak Automobilgintzan. 6 kreditu
- . Kanpoko Praktika I. 6 kreditu
- . Automatizazio eta Robotika Industrialak. 6 kreditu
- . Ekoizpena Automobilgintzan. 6 kreditu
- . Ibilgailuen Ingeniaritzarako Instrumentazioa. 6 kreditu
- . Kanpoko Praktika II. 12 kreditu

#### Laugarren maila:

- . Kanpoko Praktika III. 12 kreditu
- . Kalitatea eta Logistika. 6 kreditu
- . Kanpoko Praktika IV. 12 kreditu
- . Gradu Amaierako Lana. 12 kreditu

**Hizkuntzak:** irakasgai guztiak bi hizkuntzetan eskaintzen dira: euskara, gaztelania edo ingelesa.

#### LAN IRTEERAK

Automobilgintzaren Ingeniaritzako gradudunak prestakuntza sendoa izango du, eta automobilgintzaren alorreko eremu profesionalean sor daitezkeen diziplina anitzeko arazoei aurre egin eta horiek ebazteko gai izango da.

Titulua diziplinartekoa da, nagusiki; baina, aldi berean, espezializazio maila garrantzitsua eskatzen du diziplina bakoitzean, sektoreko lehiakortasun handia dela-eta.

#### IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK

- \* Euskal Herriko Unibertsitatea (Gasteiz)
- \* Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa
- \* Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa

- \* Vic-eko Unibertsitatea
- \* Vigoko Unibertsitatea

**2025/26 ikasturteko datuak**

**LOTURA INTERESGARRIAK**

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Euskal Herriko Unibertsitatea](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

Info Gaztea

## **BASO ETA NATURA-INGURUNEKO INGENIARITZAKO GRADUA**

Baso eta Natura-inguruneko Ingeniaritzako graduatua ondoren aipatuko diren eremuetan baso zientzia eta teknologiak ezagutu, garatu eta aplikatzeko gai izango da: mendien antolamendua eta kudeaketa, arrain-, ehiza, larratze- eta baso-aprobetxamendua eta produkzioa eta baso-industriak. Beti ere ingurumena errespetatuz eta modu errentagarri batean lan eginez.

### **SARTZEKO BALDINTZAK**

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorako en sarbide-proba.

### **IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA**

Baso eta Natura-inguruneko Ingeniaritzako Graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

### **OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK** Oviedoko Unibertsitateko ikasketa-plana

#### **Lehenengo maila:**

- . Aljebra lineala. 6 kreditu
- . Estatistika. 6 kreditu
- . Kalkulua. 6 kreditu
- . Uhinak eta Elektromagnetismoa. 6 kreditu
- . Enpresa. 6 kreditu
- . Adierazpen Grafikoa. 6 kreditu
- . Informatikaren oinarriak. 6 kreditu
- . Kimika. 6 kreditu
- . Mekanika eta Termodinamika. 6 kreditu
- . Zenbaki-metodoak. 6 kreditu

#### **Bigarren maila:**

- . Baso Biologiaren Oinarriak. 6 kreditu
- . Baso Botanika. 6 kreditu
- . Edafologia eta Geomorfologia. 6 kreditu
- . Ekologia eta Klimatologia. 6 kreditu
- . Elektroteknia eta Elektrifikazioa Natura-ingurunean. 6 kreditu
- . Eraikuntza. 6 kreditu
- . Egituren Teoria. 6 kreditu
- . Dasometria eta Inbentarioa. 6 kreditu
- . Baso Makinak, Mekanizazioa eta Motorrak. 6 kreditu
- . Larratzea eta Nekazaritza eta Basozaintzako Sistemak. 6 kreditu

#### **Hirugarren maila:**

- . Topografia. 6 kreditu
- . Baso-aprobetxamenduak. 4.5 kreditu
- . Baso-bideak. 4.5 kreditu
- . Hidraulika. 6 kreditu
- . Basafauna eta Ehiza- eta Arrain-baliabideen Kudeaketa eta Antolamendua. 9 kreditu
- . Haztegiak eta Lorezaintza. 6 kreditu
- . Hidrologia eta Baso-berritze Hidrologikoa. 6 kreditu
- . Basoak Birpopulatzea eta Toki Degradatuak Berreskuratzea. 6 kreditu
- . Baso Osasuna. 6 kreditu

#### **Laugarren maila:**

- . Ingurumenaren Inpaktuko eta Ingeniaritzako Proiektuak. 6 kreditu
- . Mendien Antolamendua eta Baso Ziurtagiria. 6 kreditu
- . Natura sistemen Kudeaketara Aplikatutako IGS. 6 kreditu
- . Lurraldearen Antolamendua eta Plangintza. 6 kreditu
- . Baso-suteen Aurkako Defentsa eta Prebentzioa. 6 kreditu
- . Legeria, Soziologia eta Baso Politika. 6 kreditu
- . Gradu Amaierako Lana. 12 kreditu

#### **LAN IRTEERAK**

Ondorengo lan eremuetan arituko da graduatua:

- Baso eta natura-ingurunearen ebaluaketa eta kudeaketa iraunkorra.
- Mendiaren antolamendua, plangintza eta aprobetxamendua.
- Basafaunaren zaintza eta kudeaketa.
- Birpopulatzea eta berreskuratzea
- Akuikultura eta ehiza.
- Baso-produktuen industria-eraldaketa eta plangintza.
- Ingurumenean inpaktua duten ikerketak.

#### **IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK**

- \* Ávilako Santa Teresa de Jesús Unibertsitate Katolikoa
- \* Extremadurako Unibertsitatea
- \* Gaztela-Mantxako Unibertsitatea
- \* Huelvako Unibertsitatea
- \* Leongo Unibertsitatea
- \* Oviedoko Unibertsitatea
- \* Santiagoko Unibertsitatea
- \* Valenziako Unibertsitate Politeknikoa
- \* Valladolideko Unibertsitatea

**LOTURA INTERESGARRIAK**

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Euskal Herriko Unibertsitatea](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

**2025/26 ikasturteko datuak**

Info Gaztea

## **BIDEO-JOKOEN DISEINU ETA GARAPENeko GRADUA**

Gradu honen ikasketa planak merkatuak eskatzen duenari erantzuna ematen dio. Bideo-jokoen diseinatzaile eta garatzailearen tresna eta baliabideen prestakuntza teknikoa eskaintzen du, eta baita beste hainbat zeharkako gai ere, esaterako, sormena, estetika, artearen historia edo joerak.

### **SARTZEKO BALDINTZAK**

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

### **IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA**

Bideo-jokoen Diseinu eta Garapenerako Graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

**OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK** Juan Karlos Erregea Unibertsitateko ikasketa plana

#### **Lehenengo maila:**

- . 2D diseinu Digitala: 6 kreditu
- . Bideo-jokoetarako Fisika: 6 kreditu
- . Matematika Diskretua: 6 kreditu
- . Narrazioa, Gidoia eta Storyboard: 6 kreditu
- . Programazio Bisuala: 6 kreditu
- . 3D diseinu Digitala: 6 kreditu
- . Datuen Egiturak: 6 kreditu
- . Diseinua eta Jolasteko Kalitatearen Oinarriak: 3 kreditu
- . Modelatu Geometrikoa: 6 kreditu
- . Multimedia: 3 kreditu
- . Oinarrizko Lege-oinarriak: Lanbide-deontologia eta Berdintasuna: 6 kreditu

#### **Bigarren maila:**

- . Marrazketa Artistikoa: 6 kreditu
- . Bideo-jokoen Teknologiaren Oinarriak: 6 kreditu
- . Programazio Aurreratua: 6 kreditu
- . Datu-basea: 6 kreditu
- . Estatistika: 6 kreditu
- . Informatika Grafikoa: 6 kreditu
- . Arkitektura Grafikoak: 6 kreditu
- . Enpresa eta Bideo-jokoak: 6 kreditu
- . Metodo Matematiko eta Zenbakizkoetarako Sarrera: 6 kreditu

- . Bideo-jokoak Garatzeko Prozesua: 6 kreditu
- . Hizkuntza Modernoa: 6 kreditu

#### Hirugarren maila:

- . Jokoen Garapena Adimen Artifizialaren Bidez: 6 kreditu
- . Bideo-jokoen Ingeniaritza: 3 kreditu
- . Pertsona-makina Interakzioa eta Erabilgarritasuna: 6 kreditu
- . Jokoen Sarean: 6 kreditu
- . Ikus-entzunezko Lengoaiak eta Bide Interaktiboak: 3 kreditu
- . Prozesadore Grafiko Aurreratuak: 6 kreditu
- . Jokoetarako Algoritmoak: 6 kreditu
- . Jokalari Anitzeko Inguruneak: 6 kreditu
- . Baliabide Digitalen Datuen Kudeaketa: 6 kreditu
- . Pertsonaiak eta Eszenatokiak: 3 kreditu
- . Bideo-jokoetarako Soinua eta Musika: 3 kreditu

#### Laugarren maila:

- . Pertsonaien Jokaera: 3 kreditu
- . Diseinu Bisuala eta Azken Arteak: 3 kreditu
- . Kredituen Onarpen Akademikoa: 6 kreditu
- . Kanpoko Praktika: 15 kreditu
- . Gradu Amaierako lana: 15 kreditu

#### LAN IRTEERAK

- Bideo-jokoen diseinatzailea.
- Bideo-jokoen garatzailea.
- 3D animazioa, diseinua eta modelaketa.
- Ikus entzunezko produkzioak.
- Bideo-jokoen mailen diseinatzailea.
- Diseinu-software-aren garatzailea.
- Marrazketa eta animazioa.
- Aplikazio-analista/programatzailea.
- Web diseinatzaile eta garatzailea.
- Sare-administraria.

#### IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK

- \* Camilo José Cela Unibertsitatea
- \* Castellóko Jaume I.a Unibertsitatea
- \* Errioxako Nazioarteko Unibertsitatea
- \* Euneiz Unibertsitatea (Bideojokoetako Arteko Gradua)
- \* Gironako Unibertsitatea
- \* Juan Carlos Erregea Unibertsitatea

- \* Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa
- \* San Jorge Unibertsitatea

#### 2025/26 ikasturteko datuak

#### LOTURA INTERESGARRIAK

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Euskal Herriko Unibertsitatea](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

Info Gaztea

## **BIOMEDICAL ENGINEERING-KO GRADUA**

Gradu honetan diziplina anitzeko prestakuntza eskainiko zaizu. Horrela, Osasun Zientzietako profesionalen beharrak ulertu eta ingenerietzako ezagutzetan oinarritutako soluzio teknologikoak proposatu ahal izango dituzu (robotika, adimen artifiziala, datuen eta seinaleen tratamendua, gailu medikoak, tresnak, etab.).

### **SARTZEKO BALDINTZAK**

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

**B2 mailaren baliokidea** den ingeleseko gutxieneko maila egiaztatu beharko da.

### **IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA**

Biomedical Engineering-ko Graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

### **OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK** UPV/EHUko ikasketa-plana

#### **Lehenengo maila:**

- . Aljebra. 6 kreditu
- . Biofisika eta Biokimika Aplikatuak. 6 kreditu
- . Fisika I. 6 kreditu
- . Kalkulua I. 6 kreditu
- . Kimika. 6 kreditu
- . Fisika II. 6 kreditu
- . Giza Anatomia. 6 kreditu
- . Informatika. 6 kreditu
- . Kalkulua II. 6 kreditu
- . Zelula eta Garapenaren Biologia. 6 kreditu

#### **Bigarren maila:**

- . Diseinu Grafikoa eta Prototipatua. 6 kreditu
- . Ekuazio Diferentzialak eta Zenbakizko Metodoak. 6 kreditu
- . Estadistika. 6 kreditu
- . Giza-fisiologia. 6 kreditu
- . Materialen Erresistentzia eta Elastikotasuna. 6 kreditu
- . Seinale Biomedikoen Prozesatzearen Oinarriak. 6 kreditu
- . Biomaterialak. 6 kreditu
- . Ekonomia eta Enpresa. 6 kreditu
- . Sistema Mekanikoen Analisia. 6 kreditu

. Zirkuitu Elektrikoak. 6 kreditu

**Hirugarren maila:**

- . Ehunen Ingeniaritza eta Medikuntza Birsortzailea. 6 kreditu
- . Elektronikaren Oinarriak. 6 kreditu
- . Farmakoen garapena eta ebaluazioa. 6 kreditu
- . Komunikazio Sare eta Zerbitzuak. 6 kreditu
- . Kontrola eta Automatizazioa. 6 kreditu
- . Giza Fisiopatologia. 6 kreditu
- . Irudi Biomedikoen Prozesatzea. 6 kreditu

**Laugarren maila:**

- . Erradiologia eta Babes Erradiologikoa. 6 kreditu
- . Proiektuen Kudeaketa eta ekintzailtza. 6 kreditu
- . Gradu-amaierako lana. 6 kreditu

Ingeniaritza Biomedikoko Graduan espezialitate hauetako bat egiteko aukera izango duzu:

- ✓ Prestakuntza Duala: Ingeniaritza Biomedikoaren sektoreko enpresa batean zure prestakuntza osatu ahal izango duzu.
- ✓ Teknologia biomedikoak: sektore biomedikoan puntako teknologiei buruzko ezagutza aurreratua eskuratuko dituzu, eta praktikak egin ahal izango dituzu asistentzia- eta ospitale-inguruneetan.

Gradu hau osorik ingelesez ematen da, hautazko 2 irakasgai izan ezik.

**LAN IRTEERAK**

Biomedikuntzaren sektoreko enpresetan: diagnostiko-ekipoak eta teknologia biomedikoa garatzen duten enpresetan, enpresa farmazeutikoetan, bioteknologi enpresetan edota osasun-zerbitzu enpresetan.

Biomedikuntzaren sektoreko erakunde publikoak eta agentziak, biomedikuntzan aplikatzen diren teknologia eta soluzio berriak ikertzen dituztenak.

Ospitaleetako eta osasun-zentroetako ingeniaritza-zerbitzuak, teknologia berrien ezartzea eta daudenen mantentzea eta konpontzea sustatuz.

**IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK**

\* Euskal Herriko Unibertsitatea

**2025/26 ikasturteko datuak**

**LOTURA INTERESGARRIAK**

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Euskal Herriko Unibertsitatea](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

Info Gaztea

## **BUSINESS DATA ANALYTICS GRADUA**

Business Data Analytics-eko graduatuak gai izango dira datuak balio bihurtzeko erakundeetarako. Horrek ahalbidetu egingo du, erabaki estrategikoak hartzea, antolaketa prozesuak optimizatzea eta datuetan oinarritutako negozio eredu berriak diseinatzea. Datu-zientziak modu integralean uztartzen ditu, matematikako, estatistikako, teknologiko eta jakina, aplikazio-eremuko edo domeinuko ezagutzak. Hau da, (marketina, finantzak, ekonomia, eragiketak, etab.)

### **SARTZEKO BALDINTZAK**

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

### **IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA**

Business Data Analytics Graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

**OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK** Mondragón Unibertsitateko ikasketa plana

#### **Lehenengo maila:**

- . Oinarri matematikoak eta Estatistikoak I. 12 kreditu
- . Programazioa eta Datu Baseak I. 9 kreditu
- . Data Science I. 9 kreditu
- . Data Mining I. 5 kreditu
- . Datuen bisualizazioa I. 3 kreditu
- . Ekonomia, enpresa y Negozioa I. 16 kreditu
- . Trebetasun pertsonalak I. 3 kreditu
- . Kasu praktikoak I. 3 kreditu

#### **Bigarren maila:**

- . Oinarri matematikoak eta Estatistikoak II. 12 kreditu
- . Programazioa eta Datu Baseak II. 4 kreditu
- . Big Data eta Ekosistema digitala I. 6 kreditu Data Science II. 6
- . Data Mining II. 5 kreditu
- . Datuen bisualizazioa II. 3 kreditu
- . Ekonomia, enpresa y Negozioa II. 6 kreditu
- . Kudeaketarako tresna I. 6 kreditu
- . Bezero digitala I. 6 kreditu
- . Trebetasun pertsonala II. 3 kreditu
- . Kasu praktikoak II. 3 kreditu

#### Hirugarren maila:

- . Big Data y Ekosistema digitala II. 8 kreditu
- . Data Science III. 8 kreditu
- . Data Mining III. 9kreditu
- . Datuen bisualizazioa III. 3 kreditu
- . Ekonomia, enpresa y Negozioa III. 4 kreditu
- . Bezero digitala III. 6 kreditu
- . Kudeaketarako Tresna II. 4 kreditu
- . Trebetasun pertsonalak III. 3 kreditu

#### Laugarren maila:

- . Programazioa y Datu Baseak III. 3 kreditu
- . Big Data y Ekosistema digitala III. 3 kreditu
- . Data Mining IV. 3 kreditu
- . Datuen bisualizazioa IV. 3 kreditu
- . Trebetasun pertsonalak IV. 3 kreditu
- . Esperientzia praktikoa. 30 kreditu
- . GBL. 9 kreditu

#### LAN IRTEERAK

Negoio-prozesuen digitalizazioak, gure bizitzako esparru guztietako digitalizazioarekin batera, (smartphone eta sare sozialen erabilera, online erosketak eta abar) erakundeek sortzen, biltzen eta prozesatzen dituzten datuen gehikuntza esponentziala ekarri du. Egoera horren aurrean, datu kopuru handien azterketa eta interpretazioa, lehenasun estrategikoetako bat bihurtzen ari da enpresentzat.

Industria, banka, marketina, osasuna, merkataritza elektronikoa, retaila, finantzak, telekomunikazioak eta abar bezalako esparruek, datu-kopuru izugarriak sortzen dituzte. Hori dela eta, datuen arloarekin lotutako profesionalak behar dituzte, negozio berriak optimizatzeko eta sortzeko.

#### IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK

\* Mondragon Unibersitatea

#### **2025/26 ikasturteko datuak**

#### LOTURA INTERESGARRIAK

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Mondragon Unibersitatea](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

## **DATUEN ZIENTZIA ETA ADIMEN ARTIFIZIALEKO GRADUA**

Datuen produkzio ugaria dela eta, hauek kudeatzeko eta prozesatzeko eta hauei balioa, esanahia eta erabilgarritasuna ateratzeko gai diren profesionalak beharrezkoak dira. Graduatuak adimen artifizialean oinarritutako eta negozioaren prozesu ezberdinak hobetzeko soluzioak diseinatuko ditu.

### **SARTZEKO BALDINTZAK**

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

### **IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA**

Datuen Zientzia eta Adimen Artifizialeko Graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastordiak.

### **OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK** Deustuko Unibertsitateko ikasketa-plana

#### **Lehenengo maila:**

- . Aljebra. 6 kreditu
- . Kalkulua. 6 kreditu
- . Elektronika Digitala. 6 kreditu
- . Konputagailuetarako Sarrera. 6 kreditu
- . Programazioaren Oinarriak. 6 kreditu
- . Matematika Diskretua. 6 kreditu
- . Objektuetara Bideratutako Programazioa. 6 kreditu
- . Enpresen Administrazioa. 6 kreditu
- . Konputagailuen Ingeniaritza. 6 kreditu
- . Algoritmika. 6 kreditu

#### **Bigarren maila:**

- . Datu-baseak. 6 kreditu
- . Estatistika. 6 kreditu
- . Telematika. 6 kreditu
- . Aplikazioen Programazioa. 6 kreditu
- . Programazio Teknikoa eta Zientifikoa. 6 kreditu
- . Balore eta Aukeren Prestakuntza. 6 kreditu
- . Software-aren Baldintzak. 6 kreditu
- . Estatistika Aurreratua. 6 kreditu
- . Datuen Zientzia. 6 kreditu
- . Datuen Bistaratzea. 6 kreditu

#### Hirugarren maila:

- . Kalkulagarritasuna eta Konplexutasuna. 6 kreditu
- . Web Ingeniaritza. 6 kreditu
- . Informazioaren Modelatze Aurreratua. 6 kreditu
- . Machine Learning. 6 kreditu
- . Adimen Artifizialerako Sarrera. 6 kreditu
- . Proiektuen Kudeaketa. 6 kreditu
- . Erabakiak Hartzeko Sistemak eta Business Intelligence. 6 kreditu
- . Optimizazioa. 6 kreditu
- . Deep Learning. 6 kreditu
- . Datu-bolumen Handien Tratamendua. 6 kreditu

#### Laugarren maila:

- . Hautazkoak edo Nazioarteko Mugikortasun Programa. 30 kreditu
- . Informazioaren Segurtasuna. 6 kreditu
- . Etika Zibikoa eta Profesionala. 6 kreditu
- . Machine Learning Aurreratua. 6 kreditu
- . Gradu Amaierako Proiektuak. 12 kreditu

Datuen Zientzia eta Adimen Artifizialeko Gradua lortzeko ingeleseko B2 maila erakutsi beharko duzu (Cambridge Unibertsitateko First Certificate tituluaren baliokidea)

**Hizkuntzak:** euskara, gaztelania eta ingelesa.

#### LAN IRTEERAK

Ondorengoetan lan egiteko aukera izango duzu:

- Datuen zientzia eta adimen artifizialeko teknologiak enpresara gehitu, lehiakortasunaren hobekuntzarako osagai estrategiko gisa.
- Datuetan oinarritutako erabaki, prozesatze eta harrapatze prozesuak diseinatzea, hedatzea, ebaluatzea eta mantentzea enpresa eremuetan.
- Informazio ugaria eta adimen artifizialaren trataeraren eremuan teknologiak eta joera teknologiko berriak menderatzea.
- Datu ugari eta adimen artifizialeko prozesatze sistemak diseinatzea, eta hauek komunikatzea.

#### IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK

- \* Deustuko Unibertsitatea (Bilbao)
- \* Euneriz Unibertsitatea (Datuen Zientzian Gradua)
- \* Diseinu, Berrikuntza eta Teknologiako Unibertsitatea
- \* Elkeko Miguel Hernandez Unibertsitatea
- \* Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa
- \* Nafarroako Unibertsitate Publikoa (Datuen Zientzian Gradua)

\* Valentziako Nazioarteko Unibertsitatea

**2025/26 ikasturteko datuak**

**LOTURA INTERESGARRIAK**

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

[Deustuko Unibertsitatea](#)

[Euneriz Unibertsitatea](#)

Info Gaztea

## **DISEINU MEKANIKOKO INGENIARITZAKO GRADUA**

Diseinu mekanikoko ingeniaria industrian lan egingo duen pertsona da, bereziki produktuak eta zerbitzuak diseinatzeko sailetan. Diseinu industrial eta berrikuntza kudeatuko duen profesionala da. Diseinu industrial jarduera kreatzaile eta teknikoa da, non prozesu eta produktuen diseinuaren alderdi guztiak kontuan hartzen diren, hau da, kalitatea, funtzionalitatea, jasangarritasuna eta merkatuaren onarpena.

### **SARTZEKO BALDINTZAK**

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

### **IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA**

Diseinu Mekanikoko Ingeniaritzako Graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

**OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK** Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasketa plana

#### **Lehenengo maila:**

- . Matematika I. 6 kreditu
- . Informatika. 6 kreditu
- . Adierazpen Grafikoa. 6 kreditu
- . Fisikaren Oinarriak. 6 kreditu
- . Enpresa. 6 kreditu
- . Estatistika. 6 kreditu
- . Kimika. 6 kreditu
- . Fisikan Sakontzea. 6 kreditu
- . Industria Marrazketa. 6 kreditu
- . Matematika II. 6 kreditu

#### **Bigarren maila:**

- . Materialen Zientzia. 6 kreditu
- . Fabrikazioaren Oinarriak. 6 kreditu
- . Ingeniaritza Elektrikoa. 6 kreditu
- . Makinen Teoria. 6 kreditu
- . Termodinamika eta Jariakinen Mekanika. 6 kreditu
- . Materialen Erresistentzia eta Elastikotasuna. 6 kreditu
- . Elektronika eta Automatika. 6 kreditu
- . Bulego Teknikoa. 6 kreditu
- . Produkzioaren Antolakuntza. 6 kreditu

. Teknologia Kimikoa eta Ingurumenarena. 6 kreditu

**Hirugarren maila:**

- . Mekanika, Metalurgia eta Metaloteknia. 6 kreditu
- . Materialen Erresistentzian Sakontzea. 6 kreditu
- . Ordenagailu Bidezko Diseinua. 6 kreditu
- . Makina Termikoak. 6 kreditu
- . Makina Hidraulikoak. 6 kreditu
- . Egituren Teoria. 6 kreditu
- . Makinen Diseinua, Saiakuntza eta Kalkulua. 6 kreditu
- . Fabrikazioaren Ingeniaritza. 6 kreditu
- . Diseinuaren Metodologia. 6 kreditu
- . Diseinu Tailerra. 6 kreditu

**Laugarren maila:**

- . Gradu Amaierako Lana. 12 kreditu

**LAN IRTEERAK**

Diseinu Mekanikoko Ingeniaritzako gradudunek ondorengo sailetan lan egiteko gaitasuna lortuko dute: energia, termoteknia, klimatizazioa, materialak, mekanika, fabrikazioa eta produkzioa, egiturak, automobilgintza, eta abar. Ingeniaritza mekanikoko proiektuak sinatzeko gaitasuna izango dute.

Profesional honek enpresa industrialaren edozein sailean lan egiteko aukera izango du. Lan irteera interesgarrienak ondorengo sektoreetan lortuko lirateke: industrian, garapen teknologiko, eraikuntza, produkzio, mantentze lan, ustiapen, kalitate kontrola eta ikuskapen teknikoko proiektuak burutzen dituzten instalazioetan, aholkularitza-enpresetan eta bulego teknikoetan. Gradudun hauek ere, zerbitzuetako enpresetan eta autonomo gisa lan egin dezakete, proiektuak egiten eta ondorengoez arduratuz: industria antolakuntza eta mantentze lanak, asistentzia teknikoa, hornikuntza, kalitatea, osasuna eta lan segurtasuna, ingurumen industrialia, aholkularitza eta abar. Lanbide Heziketako zentroetan irakasle izan daiteke.

Profesional honek industria diseinuaren eremuan duen ezagutza espezifikoak, diseinuko enpresa, zentro edo sailetan lan egiteko aukera emango dio, produktu berrien sorkuntza, garapen eta sustapen eremuei berrikuntza irizpideak aplikatuz. Bereziki, profil hau duen gradudunak, I+G eta kudeaketarekin erlazionaturiko lanpostuetan lan egiteko aukera izango du.

**IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK**

\* Nafarroako Unibertsitate Publikoa (Tudelako Campusa)

**2025/26 ikasturteko datuak**

**LOTURA INTERESGARRIAK**

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

[Nafarroako Unibertsitate Publikoa](#)

Info Gaztea

## **DISEINUKO GRADUA (DESIGN)**

Diseinuko gradua ondorengo ezaugarriak biltzen dituzten ikasleei zuzenduta dago:

- . Sormena
- . Espazio ikusmena
- . Gauzak sortzea gustuko duten ikasleak, sortzea pentsatzen duten bitartean
- . Taldean lan egiteko gaitasuna
- . Joerei adi egotea
- . Artea eta teknologia gustuko izatea

Gradu hau ikasteko ingelesa menderatu behar da, B2 maila edo baliokidea (First Certificate ; TOEFL IBT 61-79). Titulurik ez duten ikasleek proba espezifikoak egin dezakete, idatzikoa eta ahozkoa, Nafarroako Unibertsitateko Hizkuntza Eskolan.

### **SARTZEKO BALDINTZAK**

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

### **IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA**

Diseinuko Gradua 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

### **OINARRIZKO PRESTAKUNTZA** Nafarroako Unibertsitateko ikasketa plana

#### **Lehenengo maila:**

- . Azken Mendeko Kultura Artistikoa: 6 kreditu
- . Forma eta Irudia: 6 kreditu
- . Integraziorako Laborategia I: 6 kreditu
- . Diseinu Tailerra I: 9 kreditu
- . Tradizio Kreatzaileak Historian Zehar: 6 kreditu
- . Forma eta Materia: 6 kreditu
- . Integraziorako Laborategia II: 6 kreditu
- . Diseinu Tailerra II: 9 kreditu
- . Antropologia: 6 kreditu

#### **Bigarren maila:**

- . Tradizio Kreatzaileak Kultura Hispanikoan: 6 kreditu
- . Forma eta Teknika: 6 kreditu
- . Integraziorako Laborategia III: 6 kreditu
- . Diseinu Tailerra III: 9 kreditu
- . Gertaera Kreatzaile Garaikideak: 6 kreditu

- . Forma eta Industria: 6 kreditu
- . Integraziorako Laborategia IV: 6 kreditu
- . Diseinu Tailerra IV: 9 kreditu
- . Etika: 6 kreditu

#### **Hirugarren maila:**

- . Arte Aplikatuen Herentzia: 6 kreditu
- . Teknika Aplikatuak I: 3 kreditu
- . Proiektuen Kudeaketa: 3 kreditu
- . Kultura Gakoak I: 3 kreditu
- . Sorkuntzarako Laborategia I: 6 kreditu
- . Diseinu Tailerra V (lagunduta): 9 kreditu
- . Diseinuaren Joera Garaikideak: 6 kreditu
- . Teknika Aplikatuak II: 3 kreditu
- . Berrikuntzaren Kudeaketa: 3 kreditu
- . Kultura Gakoak II: 3 kreditu
- . Sorkuntzarako Laborategia II: 6 kreditu
- . Diseinu Tailerra VI (lagunduta): 9 kreditu

#### **Laugarren maila:**

- . Web eta Komunikazio Estrategiak: 3 kreditu
- . Enpresa Kudeaketa: 3 kreditu
- . Merkatu Estrategiak: 3 kreditu
- . Lidergo Sortzailerako Tailerra: 3 kreditu
- . Gradu Amaierako Lana: 18 kreditu

#### **MINORRAK**

Burututako hautazko irakasgaien arabera, ikasleek hauetako minorren bat lor dezakete:

- . Produktuaren diseinua
- . Modako diseinua
- . Zerbitzuen diseinua

**Hizkuntzak:** elebiduna (gaztelania-ingelesa). Lehenengo maila ingelesez emango da osorik.

#### **LAN IRTEERAK**

Moda diseinua: moda diseinatzailea, produktuaren koordinatzailea, arropa diseinatzailea, osagarrien diseinatzailea, zuzendari artistikoa, zuzendari kreatzailea, estilista, moda ikertzailea, coolhunter.

Produktuaren diseinua: altzari diseinatzailea, arropa diseinatzailea, etxetresna elektrikoaren diseinatzailea, hiri-altzarien diseinatzailea, packaging diseinatzailea, branding, multimedia diseinatzailea.

Zerbitzuen diseinua: diseinua eta estrategia, argiztapena, ekitaldien diseinua, joera, berrikuntza eta enpresa strategiaren ikerketak. Erakusketa, stand eta muntaketa efimeroen diseinua. Nortasun korporatiboa. Eszenografia.

#### **IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK**

- \* Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa
- \* Bartzelonako Unibertsitatea
- \* Francisco de Vitoria Unibertsitatea
- \* La Lagunako Unibertsitatea
- \* Madrilgo Unibertsitate Europarra
- \* Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea
- \* Nafarroako Unibertsitatea
- \* Ramon Llull Unibertsitatea
- \* Vic-eko Unibertsitatea
- \* Vigoko Unibertsitatea

#### **2025/26 ikasturteko datuak**

#### **LOTURA INTERESGARRIAK**

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)  
[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)  
[Nafarroako Unibertsitatea](#)

## ENERGIA BERRIZTAGARRIETAKO INGENIARITZAKO GRADUA

Energia Berriztagarrietako Ingeniaritzako Gradua sortzeko arrazoia arlo horretan geroz eta aditu gehiago prestatzeko dagoen benetako eskaera da. Eskaera horrek garrantzi handiagoa izango du datozen urteetan, eta hainbat esparrutara hedatuko da gainera: energiaren sorkuntza, garraio, biltegitratze eta banaketaren arloan da, gaur egun, bereziki garrantzizkoa, baina, aurrera begira, garraiora, eraikuntzara edo, oro har, industriara ere hedatuko da. Izan ere, energia modu eraginkorrean erabiltzeak interes handiagoa hartuko du sektore guztietan. Etorkizuneko tituludunek aurre egin beharko diete gaur egun oso interesgarriak eta adierazgarriak diren hainbat arazo teknikori eta ingeniaritzako arazori; besteak beste, ibilgailu elektrikoei, termo-eguzki zentraleri eta itsasoko olatuetatik energia ateratzeari.

### SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

### IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Energia Berriztagarrietako Ingeniaritzako Graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

### IKASKETA PLANA UPV/EHUko ikasketa-plana

	Oinarrizko prestakuntza	Industria adarrekoak	Nahitaezkoak	Hautazkoak	Gradu amaierako lana	Guztira
1	54	0	6	0	0	60
2	6	48	6	0	0	60
3	0	0	60	0	0	60
4	0	12	12	24	12	60
Guztira	60	60	84	24	12	240

### OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK

#### Lehenengo maila:

- . Adierazpen Grafikoa eta Ordenagailuz Lagundutako Diseinua. 6 kreditu
- . Aljebra. 6 kreditu
- . Análisi Matematikoa eta Numerikoa. 6 kreditu
- . Energia Berriztagarrietarako Sarrera. 6 kreditu
- . Enpresen Antolakuntza, Kudeaketa eta Administrazioa. 6 kreditu

- . Fisika I. Mekanika. 6 kreditu
- . Fisika II. Elektromagnetismoa eta Uhinak. 6 kreditu
- . Informatika. 6 kreditu
- . Kalkulua. 6 kreditu
- . Kimika. 6 kreditu

#### Bigarren maila:

- . Bero Transferentzia. 6 kreditu
- . Bioenergia. 6 kreditu
- . Elektronika. 6 kreditu
- . Elementu Mekanikoak. 6 kreditu
- . Fluidoaren Mekanika. 6 kreditu
- . Makina Elektrikoak. 6 kreditu
- . Matematika Estatistikoa. 6 kreditu
- . Materialen Erresistentzia eta Estatika. 6 kreditu
- . Termodinamika. 6 kreditu
- . Zirkuitu Elektrikoak. 6 kreditu

#### Hirugarren maila:

- . Automatizazioa Energia Sistemetan. 6 kreditu
- . Eguzki Energia Fotoboltaikoa. 6 kreditu
- . Energia Berriztagarrietako Instalazio Elektrikoak. 6 kreditu
- . Energia Elektrikoaren Egokitzea. 6 kreditu
- . Energia Eolikoa. 6 kreditu
- . Energia Geotermikoa eta Eguzki Energia Termikoa. 6 kreditu
- . Energia Hidraulikoa. 6 kreditu
- . Energia Sistemetako Tresneria, Monitoretza eta Komunikazioak. 6 kreditu
- . Erregulazio Automatikoa eta Kontrola. 6 kreditu
- . Sorkuntza Banatuko Teknologiak. 6 kreditu

#### Laugarren maila:

- . Energiaren Bihurtze Prozesuetako Sistema Elektronikoak. 6 kreditu
- . Eraginkortasun Energetikoa. 6 kreditu
- . Kudeaketa Osorako Sistemak. 6 kreditu
- . Proiektuen Kudeaketa. 6 kreditu
- . Gradu-amaierako lana. 12 kreditu

**Hizkuntzak:** euskara, gaztelania eta ingelesa. (OHARRA: Titulazio honetako irakasgai guztiak ez dira hizkuntza guztietan ematen)

#### LAN IRTEERAK

Lan-jarduerak honako hauek izan daitezke, adibidez:

- . Proiektuak garatzea energia berriztagarrien arloan (eolikoa, eguzkikoa, geotermikoa, minihidraulikoa, itsasokoa; energia sortzea, banatzea eta biltegitratzea).
- . Ekipoak mantentzea (parke eolikoak, eguzki-baratzeak, etab.)
- . Energia berriztagarrien baliabideak ebaluatzea (haizearen abiadura, eguzki-irradiazioa, olatuen batez besteko altuera eta abar neurtzea)
- . Energia berriztagarrietarako hainbat teknologia ezartzeak ingurumenean dituen eraginak aztertzea.
- . Eraikin eta instalazioen energia-ikuskaritzak (energia aurreztea eta modu eraginkorrean erabiltzea)
- . Bakartutako sistema elektrikoak eta elektronikoak eta sarera konektatzeko sistemak garatzea.
- . Zentro teknologikoetako eta enpresetako ikerketa-proiektuetan parte-hartzea.

### **IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK**

\* Euskal Herriko Unibertsitatea (Eibar)

### **2025/26 ikasturteko datuak**

### **LOTURA INTERESGARRIAK**

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Euskal Herriko Unibertsitatea](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

## **ENERGIAREN INGENIARITZAKO GRADUA**

Etorkizun jasagarriago baten alde, energia ahalik eta modu eraginkorrean kudeatzea du helburu MONDRAGON UNIBERTSITATEko Energiaren Ingeniaritza Graduak. Energiaren sorkuntza sistemak aztertu eta diseinatzeko (energia berriztagarriak adb.) eta banaketa eta metaketa-sistemez arduratzeko (bateria adb.) prestatuko ditugu etorkizuneko energiaren ingeniariak. Egungo behar energetikoak antzeman beharko dituzte, enpresen beharrei erantzunez, ikerketaren bidez eta sistema, prozesu eta produktu berriak diseinatu.

### **SARTZEKO BALDINTZAK**

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

### **IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA**

Energiaren Ingeniaritzako Graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

### **OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK** Mondragon Unibertsitateko ikasketa-plana

#### **Lehenengo maila:**

- . Matematika I. 6 kreditu
- . Adierazpen grafikoa. 6 kreditu
- . Fisika I. 6 kreditu
- . Informatika Oinarriak. 6 kreditu
- . Oinarri Metodologikoak. 6 kreditu
- . Matematika II. 6 kreditu
- . Kimika. 6 kreditu
- . Fisika. 6 kreditu
- . Energia eta Iraunkortasuna. 6 kreditu
- . Enpresa. 6 kreditu

#### **Bigarren maila:**

- . Matematika III. 6 kreditu
- . Teknologia Elektronikoa I. 4.5 kreditu
- . Automatizazioa I. 3 kreditu
- . Fluidoen Mekanika. 6 kreditu
- . Makina Elektrikoak. 6 kreditu
- . Teknologia Elektronikoa II: 4.5 kreditu
- . Energia Termikoa: 6 kreditu
- . Makina eta Mekanismoen Teoria. 4.5 kreditu
- . Materialen Zientzia eta Teknologia. 4.5 kreditu

- . Tresneria eta Kontrola. 6 kreditu
- . Matematika IV. 6 kreditu
- . Energia Elektromekanikoaren Bihurketa. 6 kreditu
- . Proiektu Energetikoen Bulegoa I. 3 kreditu

#### Hirugarren maila:

- . Energia Elektrikoaren Bihurtzea. 6 kreditu
- . Prozesuen Kontrola. 4.5 kreditu
- . Energia Biltegitratzeko Teknologia. 4.5 kreditu
- . Sorkuntza Termofluidikoaren Zikloak. 6 kreditu
- . Eraginkortasun Energetikoa Osagaietan. 4.5 kreditu
- . Datuak Eskuratu eta Monitorizatzeko Sistemak. 6 kreditu
- . Energia Elektrikoa Sortu eta Garraiatzea. 4.5 kreditu
- . Sorkuntza Banatua eta Energia Berriztagarriak : 4.5 kreditu

#### Laugarren maila:

- . Gradu Amaierako Lana. 12 kreditu

#### LAN IRTEERAK

Energiaren Ingeniariek irteera profesional zabala eta moldakorra dute. Hauetariko batzuk :

- . Energia sorkuntza, garraio, banaketa eta kontsumo arloko ekipamendu eta instalazioak aztertu, diseinatu, mantendu eta integratu, inguruneko sostengarritasuna eta gizarte inpaktua kontuan hartuz.
- . Energia zentral eta sareekin jardun, gainbegiratu eta mantendu (energia berriztagarriei arreta berezia jarriz).
- . Energia kontsumo handia duten enpresa eta erakundeetako sistemak gobernatu.
- . Produktu eta energia zerbitzuen salerosketa administratu, enpresako sail desberdinekin eta bertako eta nazioarteko hornitzaileekin modu eraginkorren komunikatuz.
- . Berrikuntzaren kudeaketa egin, aukera berriak antzeman eta merkatura eramanez.

#### IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK

- \* Mondragon Unibertsitatea (Donostia). **Ibilbide duala**
- \* Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa
- \* Leongo Unibertsitatea
- \* Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatea
- \* Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa
- \* Malagako Unibertsitatea
- \* Sevillako Unibertsitatea
- \* Valentziako Unibertsitate Politeknikoa
- \* Vigoko Unibertsitatea
- \* Juan Carlos Erregea Unibertsitatea
- \* Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala UHUN

**2025/26 ikasturteko datuak**

**LOTURA INTERESGARRIAK**

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

[Mondragon Unibertsitatea](#)

[Nafarroako Unibertsitatea](#)

Info Gaztea

## **ERAIKUNTZA INGENIARITZAKO GRADUA**

Tituludunek eraikuntzaren arloko profesional bilakatuko dituen trebakuntza jaso behar dute, hainbat zeregin gauzatzeko: besteak beste, proiektuak idatzi, eraikuntza-lanak gidatu edo zuzendu, prozesuen eta berauen kontratazioaren kudeaketa ekonomikoa gauzatu, kontrol tekniko eta ekonomikoa eraman, likidazioak eta egiaztagiria egin, segurtasunaz eta arriskuen prebentzioaz arduratu, materialen kalitate-kontrola gauzatu, etab.

### **SARTZEKO BALDINTZAK**

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

### **IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA**

Eraikuntza Ingeniaritzako Graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

### **OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK**

Gaztela-Mantxako Unibertsitateko

ikasketa plana

#### **Lehenengo maila:**

- . Matematikaren Oinarriak I. 6 kreditu
- . Matematikaren Oinarriak II. 6 kreditu
- . Fisikaren Oinarriak I. 9 kreditu
- . Fisikaren Oinarriak II. 6 kreditu
- . Irudikapen Sistemak. 9 kreditu
- . Eraikuntza Materialen Oinarriak. 6 kreditu
- . Eraikuntza Materialak I. 6 kreditu
- . Eraikuntza I. 6 kreditu
- . Eraikuntza II. 6 kreditu

#### **Bigarren maila:**

- . Zuzenbidea. 6 kreditu
- . Enpresen Zuzendaritza. 6 kreditu
- . Marrazketa I. 6 kreditu
- . Marrazketa II. 6 kreditu
- . Eraikuntza Instalazioak I. 9 kreditu
- . Eraikuntza Egiturak I. 9 kreditu
- . Eraikuntza Materialak II. 9 kreditu
- . Eraikuntza III. 9 kreditu

#### **Hirugarren maila:**

- . Segurtasun eta Osasunerako Sarrera eta Proiektu Teknikoak. 6 kreditu
- . Proiektu Teknikoak. 6 kreditu
- . Laneko Segurtasuna eta Osasuna. 6 kreditu
- . Eraikuntza Instalazioak II. 6 kreditu
- . Eraikuntza Egiturak II. 6 kreditu
- . Lanetarako Ekipamenduak. 6 kreditu
- . Topografia eta Zuinketak. 6 kreditu
- . Eraikuntza IV. 6 kreditu
- . Patologia eta Zaharberritzea. 6 kreditu
- . Lanen Plangintza, Antolakuntza eta Kontrola. 6 kreditu

#### **Laugarren maila:**

- . Eraikuntzaren Kalitatea. 6 kreditu
- . Hirigintzaren Kudeaketa. 6 kreditu
- . Neurketak eta Aurrekontuak. 6 kreditu
- . Lanak eta Kudeaketa Ekonomikoa. 6 kreditu
- . Peritazioak eta Tasazioak. 6 kreditu
- . Gradu Amaierako Proiektua. 12 kreditu

#### **LAN IRTEERAK**

Eraikuntza Ingeniaritzako graduatuek ondorengo lan eremutan lan egingo dute:

. Sektore pribatuan: eraikuntza enpresa, enpresa sustatzaile, birgaitze eta proiektu enpresetan. Eraikuntza lanen burua, zuzendaritza teknikoa, aholkatze teknikoa edo merkataritza agentea bezalako lanpostuak izan ditzakete. Aholkatze teknikoa eskaintzen duten enpresetan, dekorazioa eta barne-diseinukoetan, tasazio eta peritaziokoetan, higiezin agentzietan eta bulego teknikoetan lan egingo dute.

. Lanbidea era askean egikaritzeko aukera: eraikuntza-lanen aukerako zuzendaritza, segurtasun eta osasun ikerketen idazketa, gauzatze-fasean dauden segurtasun eta osasunaren koordinazioa, proiektu, kontsultoretza eta laguntza teknikoen idazketa, etabar.

. Administrazio publikoa: Europar Batasuneko edo estatuko funtzionarioa, baita autonomikoa eta tokikoa ere, batik bat hirigintza eta plangintza arloetan.

. Ikerketa, garapena eta berrikuntza: ikerketa zentro publiko nahiz pribatuetan eta enpresa handietako I+D+I sailetan.

. Irakaskuntza publiko eta pribatua: DBH, batxilergoa edo unibertsitatean.

#### **IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK**

- \* Alfontso X.a Jakituna Unibertsitatea
- \* Cartagenako Unibertsitate Politeknikoa
- \* Gaztela-Mantxako Unibertsitatea
- \* Granadako Unibertsitatea
- \* Salamancako Eliz Unibertsitatea
- \* San Antonio Unibertsitate Katolikoa

2025/26 ikasturteko datuak

**LOTURA INTERESGARRIAK**

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

Info Gaztea

## GEOMATIKA ETA TOPOGRAFIA INGENIARITZAKO GRADUA

Geomatika eta Topografia Ingeniaritzako Graduarekin lortzen diren ezagutza zientifiko-teknologikoek gaitasun profesionala ematen dute proiektuak sortu, idatzi, antolatu, planifikatu, garatu eta izenpetzeko arlo hauetan: kartografia, topografia, informazio geografikoaren sistemen ezarpen eta administrazioa, geodesia, fotogrametria, teledetekzioa eta katastroa.

### SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

### IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Geomatika eta Topografia Ingeniaritzako Graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduek.

### IKASKETA PLANA

Leongo Unibertsitateko ikasketa-plana

Ikasmailak	Oinarrizko prestakuntza	Nahitaezkoak	Hautazkoak	Gradu amaierko lana	Guztira
1	48	0	0	0	60
2	12	48	0	0	60
3	0	60	0	0	60
4	0	9	39	12	60
Guztira	60	129	39	12	240

### OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK

#### Lehenengo maila:

- . Kalkulua. 6 kreditu
- . Informatika. 6 kreditu
- . Mekanika. 6 kreditu
- . Adierazpen Grafikoko Teknikak. 6 kreditu
- . Kartografia. 6 kreditu
- . Datu Baseak. 6 kreditu
- . Eletromagnetismoa eta Optika. 6 kreditu
- . Geomorfologia. 6 kreditu
- . Aljebra. 6 kreditu
- . Tresna eta Behaketa Topografikoak. 6 kreditu

#### Bigarren maila:

- . Metodo Matematikoak. 6 kreditu
- . Enpresen Kudeaketa eta Antolaketa. 6 kreditu
- . Behaketen Doikuntza. 4.5 kreditu
- . Astronomia eta Geodesia Geometrikoa. 7.5 kreditu
- . Metodo Topografikoak I. 6 kreditu
- . Kartografia Matematikoa. 3 kreditu
- . Geodesia Espaziala. 6 kreditu
- . Geofisika. 4.5 kreditu
- . Metodo Topografikoak II. 4.5 kreditu
- . Informazio Geografikoko Sistemak. 6 kreditu
- . Irudi Digitalaren Tratamendua. 6 kreditu

#### Hirugarren maila:

- . Katastroa. 6 kreditu
- . Fotogrametria. 6 kreditu
- . Datu Espazialen Azpiegitura. 6 kreditu
- . Teledetekzioa. 6 kreditu
- . Lanen Topografia I. 6 kreditu
- . Diseinu eta Produkzio Kartografikoa. 6 kreditu
- . Fotogrametria II. 4.5 kreditu
- . Geodesia Fisikoa. 4.5 kreditu
- . Ingeniaritza Zibila. 4.5 kreditu
- . Teledetekzioa II. 4.5 kreditu
- . Lanen Topografia II. 6 kreditu

#### Laugarren maila:

- . Aplikazio Geomatikoak. 6 kreditu
- . Kartografia Tematikoa. 4.5 kreditu
- . Objektu Hurbilaren Fotogrametria. 4.5 kreditu
- . Lurpeko Topografia. 4.5 kreditu
- . Hirigintza eta Lurraldearen Antolamendua. 4.5 kreditu
- . Aplikazio Geomatikoak II. 6 kreditu
- . Ingurumen Ingeniaritza. 4.5 kreditu
- . Gradu Amaierako Lana. 12 kreditu

**Hizkuntzak:** euskara, gaztelania eta ingelesa. (OHARRA: Titulazio honetako irakasgai guztiak ez dira hizkuntza guztietan ematen)

#### LAN IRTEERAK

Geomatika eta Topografia Ingeniaritzako graduatuak ondoko edozein jarduerari aurre egiteko gai izan behar du: teknologia-ikerketa eta -garapena, proiektuak burutzea, kalitate-kontrola eta azterketa teknikoa, Lan Publikoen eraikuntzarako aholkularitza eta kontsultoretza;

ikerketa topografikoak zuzendu, antolatu, planifikatu eta gidatzea; lurzoru eta zorupeko baliagaiak mantendu eta ustiatzea. LH eta Unibertsitate Eskolako irakasle-lanetan ere aritu ahal izango da.

#### **IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK**

- \* Jaengo Unibertsitatea
- \* Kanaria Handiko Las Palmaseko Unibertsitatea
- \* Leongo Unibertsitatea
- \* Salamancako Unibertsitatea
- \* Valentziako Unibertsitate Politeknikoa

**2025/26 ikasturteko datuak**

#### **LOTURA INTERESGARRIAK**

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)  
[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

## INDUSTRIA ANTOLAKUNTZAKO INGENIARITZAKO GRADUA

Graduaren helburu nagusia honako hau da: ikasleei teknologiaren arloko trebakuntza zabala eskaintzea industria-enpresen arloan, eta era berean enpresa-egituren kudeaketarekin eta antolakuntzarekin erlazionatutako alderdi guztiei buruzko prestakuntza sakona ematea, edozein erakundetako baliabideak ezin hobe aprobetxatzeko gai izan daitezen.

### SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

### IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Industria Antolakuntzako Ingeniaritzako Graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

### IKASKETA PLANA UPV/EHUko ikasketa-plana

	Oinarrizko prestakuntza	Nahitaezkoak	Hautazkoak	Gradu amaierako lana	Guztira
1	48	12	0	0	60
2	0	60	0	0	60
3	0	60	0	0	60
4	0	36	18	6	60
Guztira	48	168	18	6	240

### OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK

#### Lehenengo maila:

- . Aljebra Lineala. 9 kreditu
- . Kalkulua. 12 kreditu
- . Fisika. 9 kreditu
- . Fisikaren Gehipena. 6 kreditu
- . Kimika. 6 kreditu
- . Ingeniaritzako Grafikoak. 6 kreditu
- . Ingeniaritzako Grafikoen Gehipena. 6 kreditu
- . Informatika. 6 kreditu

#### Bigarren maila:

- . Estatistika. 6 kreditu

- . Materialen Zientziaren Oinarriak. 6 kreditu
- . Prozesuen Automatizazioa. 6 kreditu
- . Ekuazio Diferentzialen eta Zenbakizko Metodoen Gehipena. 6 kreditu
- . Elektroteknia. 6 kreditu
- . Jariakinen Mekanika. 6 kreditu
- . Termodinamika. 6 kreditu
- . Estatistikaren Gehipena. 6 kreditu
- . Mekanika. 6 kreditu
- . Ekonomia. 6 kreditu

#### Hirugarren maila:

- . Industrialdeak 6 kreditu
- . Antolakuntzarako Metodo Kuantitatiboak I. 6 kreditu
- . Fabrikazio Teknologia. 6 kreditu
- . Merkataritza Zuzendaritza. 6 kreditu
- . Termoteknia. 6 kreditu
- . Teknologia Kimikoa. 6 kreditu
- . Ekoizpen eta Logistika Sistemen Diseinu, Plangintza eta Gestioa. 6 kreditu
- . Lanaren eta Giza Faktorearen Antolakuntza. 6 kreditu
- . Antolakuntzarako Metodo Kuantitatiboak II. 6 kreditu
- . Enpresa Lehiakortasuna eta Berrikuntza. 6 kreditu

#### Laugarren maila:

- . Ingeniaritzaren Proiektuak. 6 kreditu
- . Industria eta Teknologia Politika. 6 kreditu
- . Finantza Zuzendaritza I. 6 kreditu
- . Enpresen Estrategia eta Politikak. 6 kreditu
- . Finantza Zuzendaritza II. 6 kreditu
- . Ingurumen Zientzia eta Teknologia. 6 kreditu
- . Gradu Amaierako Lana. 6 kreditu

**Hizkuntzak:** euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa. (OHARRA: Titulazio honetako irakasgai guztiak ez dira hizkuntza guztietan ematen)

**Prestakuntza duala Unibertsitatea-Enpresa:** Prestakuntza dualeko ibilbidea aukera dezakezu, unibertsitatean eta enpresa edo erakunde batean prestakuntzaaldiak konbinatzen dituen. Profil profesionalari dagozkion gaitasunak garatu ahal izango dituzu, enpresen edo erakundeen ingurune erreal batean ikasiz eta aipamen espezifiko bat lortu

### LAN IRTEERAK

Industria Antolakuntzako Graduaren bidez, ingeniartzako arlo guztietako ezaguerak eta eskumenak izango dituzten ingeniariak trebatuko dira eta prestakuntza emango zaie enpresa-kudeaketan eta antolaketan, honako arlo hauek jorratuz: ekoizpen- eta logistika-eragiketen zuzendaritza; kudeaketa tekniko eta administratiboa; metodoen arrazionalizazioa, normalizazioa eta hobekuntza; kalitatearen kudeaketa eta hobekuntza; proiektuen planifikazioa eta kudeaketa; finantza-kudeaketa eta giza-baliabideen kudeaketa; sistemen funtzionamenduaren eta diseinuaren hobekuntza, metodo kuantitatiboen, modelizazioaren eta simulazioaren bidez; eta abar.

### IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK

- \* Euskal Herriko Unibertsitatea (Bilbao)
- \* Deustuko Unibertsitatea (Bilbao) **Ibilbide duala**
- \* Mondragon Unibertsitatea. **Ibilbide duala**
- \* Andaluziako Loiola Unibertsitatea
- \* Atlantikoko Unibertsitate Europarra
- \* Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa
- \* Burgosko Unibertsitatea
- \* Cartagenako Unibertsitate Politeknikoa
- \* Errioxako Nazioarteko Unibertsitatea (online)
- \* Jaengo Unibertsitatea
- \* Juan Carlos Erregea Unibertsitatea
- \* Kanaria Handiko Las Palmaseko Unibertsitatea
- \* Lleidako Unibertsitatea
- \* Madrilgo Urrutiko Unibertsitatea
- \* Malagako Unibertsitatea
- \* Miguel de Cervantes Unibertsitate Europarra
- \* Nafarroako Unibertsitatea
- \* Oviedoko Unibertsitatea
- \* Pompeu Fabra Unibertsitatea
- \* Sevillako Unibertsitatea
- \* Valentziako Unibertsitate Europarra
- \* Valentziako Unibertsitate Politeknikoa
- \* Valentziako Nazioarteko Unibertsitatea
- \* Valladolideko Unibertsitatea
- \* Vigoko Unibertsitatea
- \* Zaragozako Unibertsitatea

### **2025/26 ikasturteko datuak**

**LOTURA INTERESGARRIAK**

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Euskal Herriko Unibertsitatea](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

Info Gaztea

## **INDUSTRIARI APLIKATUTAKO INGENIARITZA FISIKOKO GRADUA**

Industriari Aplikatutako Ingeniaritza Fisikoko Graduak Oinarrizko Zientzien eta Ingeniaritzaren harteko sinbiosi hori bilatzen du eta etorkizuneko erronka teknologikoei aurre egiteko prestatuko zaitu. Fisikako ikasgaietan formakuntza sendoa jasoko duzu arazo ingeniariel ezberdinak bere errotik ulertzea ahalbidetuko dizuna. Gainera, formakuntza hau informatikaren ezagutza aurreratuekin osatuko duzu Adimen Artifiziala edo Robotika bezalako adarretan lan egiteko

### **SARTZEKO BALDINTZAK**

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

### **IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA**

Industriari Aplikatutako Ingeniaritza Fisikoko 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

### **OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK.** Mondragon Unibertsitatea

#### **Lehenengo maila:**

- . Oinarri Metodologikoak. 6 kreditu
- . Fisika Orokorra I. 6 kreditu
- . Kalkulua I. 6 kreditu
- . Algebra Lineala. 6 kreditu
- . Informatikako Oinarriak. 6 kreditu
- . Fisika Orokorra II. 6 kreditu
- . Kimika. 6 kreditu
- . Ekonomia eta Enpresa. 6 kreditu
- . Adierazpen Grafikoa. 6 kreditu
- . Kalkulua II. 6 kreditu

#### **Bigarren maila:**

- . Mekanika. 6 kreditu
- . Ingeniaritzara Aplikatutako Metodo Matematikoak. 6 kreditu
- . Estatistika. 4.5 kreditu
- . Ingeniaritza Elektronikoko Oinarriak. 6 kreditu
- . Teknika Esperimentalak I. 3 kreditu
- . Programazioa I. 4.5 kreditu
- . Termodinamika. 3 kreditu
- . Fisika Kuantikoa I. 4.5 kreditu
- . Fisikara Aplikatutako Metodo Matematikoak. 4.5 kreditu
- . Zenbakizko Metodoak. 4.3 kreditu

- . Fluidoaren Fisika. 4.5 kreditu
- . Teknika Esperimentalak II. 3 kreditu
- . Elektronika eta Automatika. 4.5 kreditu
- . Elektromagnetismoa I. 3 kreditu

#### Hirugarren maila:

- . Modelizazio Matematikoa. 3 kreditu
- . Elektromagnetismoa II. 3 kreditu
- . Programazioa II. 4.5 kreditu
- . Fisika Estatistikoa. 3 kreditu
- . Materialen Zientzia eta Ingeniaritza. 6 kreditu
- . Fisika Kuantikoa II. 6 kreditu
- . Optika eta Ikusmen Artifiziala. 4.5 kreditu
- . Robotika, Modelaketa eta Kontrola. 4.5 kreditu
- . Adimen Artifiziala: Ikaskuntza Automatikoa. 4.5 kreditu
- . Instrumentazioa eta Seinaleen Tratamendua. 4.5 kreditu
- . Fisika Erlatibista. 3 kreditu
- . Egoera Solidoaren Fisika. 4.5 kreditu

#### Laugarren maila:

- . Konputazio Kuantikoa. 4.5 kreditu
- . Adimen Artifiziala: Konputazio Ebolutiboa. 3 kreditu
- . Nanoteknologia. 3 kreditu
- . Fotonika. 4.5 kreditu
- . Gradu Bukaerako Lana. 12 kreditu

#### **LAN IRTEERAK**

I+D proiektuen kudeaketa eta zuzendaritza sektoren desberdinetako industria teknologikoetan: industrial, energetikoa, elektronikoa, medikua, nanoteknologikoa...

Datu masiboen kudeaketa eta analisisa sektore desberdinetan: finantzaria, industrial, medikua...

Software edo hardware-en garapena matematika, fisika eta ingeniartzako aplikazio aurreratuetan.

Ekipamendu berritzaileen garapena fotonika, nanoteknologia, robotika edo elektronika bezalako teknologietan.

Dozentzia eta ikerkuntza Unibertsitate zein zentro teknologikoetan.

#### **IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK**

\* Mondragon Unibertsitatea

## 2025/26 ikasturteko datuak

### LOTURA INTERESGARRIAK

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

[Mondragon Unibertsitatea](#)

Info Gaztea

## INDUSTRIA DISEINUKO INGENIARITZAKO GRADUA

Ikasketa hauek egiten duen ikasleak, gure inguruan dauden objektuak proiektatzen ikasiko du: altzariak, argiztapena, etxetresna elektrikoak, makinak, automobilak eta abar.... beti ere, izaera berritzailearekin, enpresaren lehiakortasuna handituz, marka sustatuz eta erabiltzaileen beharretara egokitutako konponketak eskainiz.

Ikasleak, produktuaren bizitza prozesuaren ikuspen orokorra eta estrategikoa jasoko du: lehenengo ideia eta zirriborroekin hasi, maketa eta prototipoetatik igaro eta azkenik, produkzio, promozio eta merkaturatzeraino helduko da.

Berrikuntza aplikatzen eta produktu eta zerbitzuei baloreak gehitzen ikasiko da: jasangarritasuna, etika zaharkitzapen programatuaren kontra, toki ekonomien sustapena eta Design for all gehitzea.

### SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

### IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Industria Diseinuko Ingeniaritzako Graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

**IKASKETA PLANA:** Deustuko Unibertsitateko ikasketa plana

Ikasmailak	Oinarrizko prestakuntza	Nahitaezkoak	Hautazkoak	Gradu amaierako lana	Guztira
1	48	12	0	0	60
2	12	48	0	0	60
3	0	60	0	0	60
4	0	12	36	12	60
Guztira	60	132	36	12	240

### OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK

Lehenengo maila:

- . Proiektuaren Kultura I: Diseinurako Sarrera. 6 kreditu
- . Diseinurako Laborategia I: Produktuaren Diseinua. 6 kreditu
- . Matematika I. 6 kreditu
- . Matematika II. 6 kreditu
- . Fisika I. 6 kreditu

- . Fisika II. 6 kreditu
- . Adierazpen Artistikoa. 6 kreditu
- . Adierazpen Grafikoa I. 6 kreditu
- . Enpresen Administrazioa. 6 kreditu
- . Kimika Orokorra. 6 kreditu

#### **Bigarren maila:**

- . Adierazpen Grafikoa II. 6 kreditu
- . Informatika Aplikatua. 6 kreditu
- . Mekanika Aplikatua. 6 kreditu
- . Metodologia eta Kreatibitatea. 6 kreditu
- . Proiektuaren Kultura II: Diseinuaren Hizkuntza eta Ideologia. 6 kreditu
- . Materialen Prozesatzea eta Zientzia. 6 kreditu
- . Diseinu Laborategia II: Erabiltzailearentzako Diseinua. 6 kreditu
- . Diseinuaren Estetika eta Historia. 6 kreditu
- . Ekialdea eta Mendebaldea eta Haien Erlijio Tradizio Nagusiak. 6 kreditu
- . Etikako Erronkak Mundu Globalean. 6 kreditu
- . Garapen Globala eta Migrazioak Bigarrena. 6 kreditu
- . Gizartean Parte Hartzea eta Balioak. 6 kreditu
- . Gizarteko Bizimodua eta Norberaren Aukera Kritikoak. 6 kreditu
- . Globalizazioa, Herritartasuna eta Kultura Arteko Gaitasuna. 6 kreditu
- . Herritarrak Gizarte Aldaketaren Eragile. 6 kreditu
- . Nazioarteko Laguntza Humanitarioa: Sarrera. 6 kreditu
- . Termodinamika Aplikatua. 6 kreditu

#### **Hirugarren maila:**

- . Diseinu Grafikoa. 6 kreditu
- . Diseinurako Laborategia III: Zerbitzuen Diseinua eta Esperientziak. 6 kreditu
- . Berrikuntza eta Ekintzailtza. 6 kreditu
- . Ergonomia. 6 kreditu
- . Smart Products. 6 kreditu
- . Komunikazioa eta Marketina. 6 kreditu
- . Produktuaren Ingeniaritza. 6 kreditu
- . Diseinu Estrategikoa eta Lehiakortasuna. 6 kreditu
- . Materialen Hautaketa eta Ingeniaritza. 6 kreditu
- . Proiektuen Kudeaketa eta Alderdi Legalak. 6 kreditu

#### **Laugarren maila:**

- . Diseinurako Laborategia IV: Design Thinking eta Gizarte Berrikuntza. 6 kreditu
- . Gizarteko eta Lanbideko Etika. 6 kreditu
- . Gradu Amaierako Proiektua. 12 kreditu

**Hizkuntzak:** irakasgaiak ikasteko hizkuntzak konbinatu daitezke: gaztelera, euskara eta ingelesa.

#### **LAN IRTEERAK**

- Industria eremu ezberdinetako enpresak (nazionalak eta nazioartekoak): etxetresna elektrikoak, altzariak, argiztapena, ekipo elektronikoak, jantziak, bizikletak, esku-tresnak, makina-tresneria, hiri-ekipamendua, osasun-ekipamendua, automozioa, trenbidea, ontzigitza...
- Industria diseinuko eta produktuen garapeneko estudioak.
- I+G sailak, Produktuen Garapenerako sailak, Marketin eta Komunikazio sailak... diseinatzaile edo freelance bezala.
- Industria diseinuko eta eko-diseinuko aholkularitza enpresak.
- Industria diseinuko estudioa, beste enpresentzako proiektuak garatuz edo zure produktuak sortuz.

#### **IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DUTEN UNIBERTSITATEAK**

- \* Deustuko Unibertsitatea (Bilbao)
- \* Vic-eko Unibertsitatea

#### **2025/26 ikasturteko datuak**

#### **LOTURA INTERESGARRIAK**

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)  
[Euskal Herriko Unibertsitatea](#)  
[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)  
[Deustuko Unibertsitatea](#)  
[Mondragon Unibertsitatea](#)  
[Nafarroako Unibertsitatea](#)  
[Nafarroako Unibertsitate Publikoa](#)  
[Creanavarra](#)  
[Dantzerti](#)

## **INDUSTRIA DISEINUKO ETA PRODUKTU GARAPENeko INGENIARITZA GRADUA**

Tituluaren helburu nagusia da balio erantsia duten produktu, kontzeptu eta zerbitzu berriak sortzeko gai diren profesionalak prestatzea. Horretarako sortze prozesuan komunikazioa, erabilera eta teknika integratu behar dira.

### **SARTZEKO BALDINTZAK**

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

### **IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA**

Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza Graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduek.

**IKASKETA PLANA** Mondragon Unibertsitateko ikasketa plana

<b>Ikasmailak</b>	<b>Oinarrizko prestakuntza</b>	<b>Nahitaezkoak</b>	<b>Hautazkoak</b>	<b>Gradu amaierako lana</b>	<b>Guztira</b>
1	48	12	0	0	60
2	12	48	0	0	60
3	0	57	3	0	60
4	0	15	33	12	60
Guztira	60	132	36	12	240

### **OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK**

#### **Lehenengo maila:**

- . Matematikak I. 6 kreditu
- . Adierazpen Grafikoa I. 6 kreditu
- . Informatikako Oinarriak. 6 kreditu
- . Fisika I. 6 kreditu
- . Oinarri Metodologikoak. 6 kreditu
- . Matematikak II. 6 kreditu
- . Kimika. 6 kreditu
- . Enpresa. 6 kreditu
- . Fisika II. 6 kreditu
- . Estetika I. 3 kreditu
- . Sormena. 3 kreditu

#### Bigarren maila:

- . Adierazpen Artistikoa I. 6 kreditu
- . Adierazpen Grafikoa II. 6 kreditu
- . Fabrikazio Prozesuak I. 4.5 kreditu
- . Diseinuaren Metodologia I. 6 kreditu
- . Materialak I. 4.5 kreditu
- . Materialak II. 4.5 kreditu
- . Adierazpen Grafikoa III. 6 kreditu
- . Prototipatzea. 3 kreditu
- . Fabrikazio Prozesuak II. 4.5 kreditu
- . Estetika II. 3 kreditu
- . Materialen Elastikotasuna eta Erresistentzia. 6 kreditu

#### Hirugarren maila:

- . Erabilgarritasuna. 3 kreditu
- . Ingurumen Alderdiak. 3 kreditu
- . Diseinuaren Metodologia II. 4.5 kreditu
- . Ordenagailuz Lagundutako Diseinua I. 6 kreditu
- . Adierazpen Artistikoa II. 4.5 kreditu
- . Ingeniaritza Termikoa eta Fluidoena. 4.5 kreditu
- . Enbasea eta Enbalajea. 3 kreditu
- . Marketina eta Komunikazioa. 3 kreditu
- . Diseinu Grafikoa. 6 kreditu
- . Ordenagailuz Lagundutako Diseinua II. 4.5 kreditu
- . Lege Alderdiak. 3 kreditu
- . Estatistika. 6 kreditu

#### Laugarren maila:

- . Gradu amaierako lana. 12 kreditu

#### LAN IRTEERAK

Titulu honetako graduatuek euren jarduera profesionala diziplina anitzeko ingurunean burutuko dute, non diziplina eta trebetasun batzuek, hala nola adierazpen grafikoa, materialen hautaketa, ergonomia, kontzeptu berritzaileak sortzeko erreminten erabilera, edota IKTak sartzea produktuetan, garrantzia handia hartuko baitute.

#### IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK

- \* Mondragon Unibertsitatea. **Ibilbide duala**
- \* Alfontso X.a Jakituna Unibertsitatea
- \* Antonio Nebrijakoa Unibertsitatea
- \* Cadizko Unibertsitatea

- \* Cardenal Herrera Unibertsitatea
- \* Castellóko Jaime I.a Unibertsitatea
- \* Coruñaiko Unibertsitatea
- \* Extremadurako Unibertsitatea
- \* Kanaria Handiko Las Palmaseko Unibertsitatea
- \* Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa
- \* Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa
- \* Malagako Unibertsitatea
- \* Nafarroako Unibertsitatea
- \* Sevillako Unibertsitatea
- \* Valentziako Unibertsitate Politeknikoa
- \* Valladolideko Unibertsitatea
- \* Zaragozako Unibertsitatea

#### **2025/26 ikasturteko datuak**

#### **LOTURA INTERESGARRIAK**

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

[Mondragon Unibertsitatea](#)

[Nafarroako Unibertsitatea](#)

## **INDUSTRIA ELEKTRONIKAKO INGENIARITZAKO GRADUA**

Industria Elektronikako Ingeniaritzan tituludunek gaitasun hauek lortuko dituzte:

Indarrean dauden araudiak ezarritako kalitate eta segurtasun arauak betetzen dituzten instalazio, produktu eta sistema elektronikoak diseinatu.

Ekipo elektronikoak diseinatu, gauzatu eta prest jarri, zehaztapenetan ezarritako eskakizunak (teknikoak, ekonomikoak, kalitate arlokoak eta segurtasunekoak) beteaz.

Prozesu industrialen diseinua, kontrola eta automatizazioa gauzatu hardwarea eta softwarea integratuz. Horrela ekoizpen sistema osatzen duten unitate ezberdinen funtzionamendua optimizatu daiteke.

Ekoizpen sistemetako ekipo elektronikoen mantenuaren gaineko antolaketa lanak burutu, eta baita zuzendaritza eta gainbegiratze lanak ere.

### **SARTZEKO BALDINTZAK**

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

### **IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA**

Industria Elektronikako Ingeniaritzako Graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastordua.

### **OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK** Mondragon Unibertsitateko ikasketa plana

#### **Lehenengo maila:**

- . Matematika I. 6 kreditu
- . Matematika II. 6 kreditu
- . Fisika Mekanikoa. 6 kreditu
- . Kimika. 6 kreditu
- . Fisika II. 6 kreditu
- . Irudikapen Grafikoa. 6 kreditu
- . Estatistika. 6 kreditu
- . Informatika Oinarriak. 6 kreditu
- . Enpresa. 6 kreditu
- . Oinarri Metodologikoak. 6 kreditu

#### **Bigarren maila:**

- . Matematika III. 6 kreditu
- . Ingeniaritza Termiko eta Jariakorra. 4,5 kreditu
- . Teknologia Elektronikoa. 4,5 kreditu
- . Materialen Zientzia, Kimika eta Teknologia. 4,5 kreditu
- . Oinarrizko Industri Automatizazioa. 4,5 kreditu

- . Elektroteknia. 4,5 kreditu
- . Makina eta Mekanismoen Teoria. 4,5 kreditu
- . Instrumentazio Elektronikoa. 4,5 kreditu
- . Elektronika Analogikoaren oinarriak. 4,5 kreditu
- . Sistema Mutifisikoen Modelatze, Simulazio eta Kontrola. 4,5 kreditu
- . Elektronika Digitalaren Oinarriak. 3 kreditu
- . Mikroprozesadoreak. 4,5 kreditu

#### Hirugarren maila:

- . Industri Automatizazioa Aurreratua. 6 kreditu
- . Potentzi Elektronika. 6 kreditu
- . Ekipo Elektrikoen Diseinua. 6 kreditu
- . Sistema Robotizatuak. 4,5 kreditu
- . Industri Elektronika. 4,5 kreditu
- . Kontrol Aurreratua. 4,5 kreditu
- . Kontroleko Ingeniaritza. 4.5 kreditu
